



Odola emateak tradizio luzea du gure inguruan

Odola kontserbatzeko teknika asmatu zenean, medikuntzak aurrerapausu handia eman zuen. Eta asmakizunarekin batera, gizarte osora zabaldu zen elkartasun-deialdia, batez ere, han-hemenka agertu ziren Odol-emaileen Elkartek bideratuta. Nafarroako mendialdeari dagokionez, duela 30 urte inguru antolatu zuten

Odola emateaz gain, gorputz-organoen emale izateko tramitazioaz ere arduratzen dira Nafarroako Odol-emaileen Elkartean

Elizondon, Nafarroako Odol-emaileen Elkarteari lotutako lehen delegazioa eskualde mailan.

Berrikiago, Beran, Donezteben eta Lesakan ere sortu dira delegazioak.  4



3 Iparralderako Departamendua erdiestea nahitaezkoa dela dio Jean Aniozbeherek

Sarako auzapezarentzat nahitaezkoa da hori, «gure nortasuna galdu nahi ez badugu»

10 Euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekan

27 Kultura: Mariano Izeta eta Patziku Perurenaren liburuak

29 Kirolak: Joku mailan urterik hoberena izan da Taberna pilotari lesakarrarentzat

Ale honekin batera: Gehigarria Elizondoko Feriak.

Urriaren 25-26an izanen dira aurtengo lehen feriak.



BAZTAN

• ALTZARIAK
• ZURGINDEGIA

☎ 948-45 23 74

IRURITA - BAZTAN

N-121-B Errepidea, 54. km.a



SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea

☎ 450354 / 450759

DONEZTEBE

Garai berriak
Modelo berriak.

Grua zerbitzua 24 ordutan

TXAPA eta PINTURA

MEKANIKA

ELEKTRIZIDADEA

GARBITZAILE-AUTOMATIKOA



DATUAK

❖ Jean Aniozbehere Sarako auzapeza da azken hamahiru urteotan. Historikoki Euskal Departamendu aren alde agertu da.

❖ Bere ustez Departamendu frantzesak da egun Ipar Euskal Herriak lortu ahal duen deszentralizazio bakarra.

❖ Hautetsi haundiek ez dutela deus aldatzerik nahi esplikatatu du Jean Aniozbeherek, eta beren ontasunen atxikitze Euskal Herria ahazten dutela gaineratu du.

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
AITOR AROZENA

👉 Jean ANIOZBEHERE Sarako Auzapeza

"Ez badugu Euskal Departamendurik erdiesten, euskalduntasuna galduko da"

EUSKAL DEPARTAMENDUA ASPALDIKO ESKAKIZUNA DA. EGUN SEKULAN BAINO HURBILAGO DELA USTE DUZU?


Bai, egia da. Ekonomian ez gara ongi ibilki eta bertze aldetik, Bearnesen menean gara azken urteotan baino gehixago, eta horrek egiten du gure galde berezia berritu eta Iparralderako Departamendu baten eskatzea. Bertzalde, denek ongi hartu dugu Garapen Kontseiluaren lana, zeren eta ekonomiari buruz egina zen eta presentatua ekonomia gure gain hartuz. Hori gauza ona da, bistan da, baina ez dugu ikusten nola burutuko den ez baldin badu iparraldeak instituzio bat.

URTEAREN AZKEN ALDERA HAUTETSIEK BOZKA EGINDU DUZUE. ZER PASATUKO DA HOR?

Badakigu gure helburua zein den; Departamendu frantzesak. Bozaldiak ikusterat ematen badu badela gehiengo bat horren alde, gure galdea indartua izanen da eta Biarnese eta Parisiko Gobernuak ikusiko dute gauza serioa dela.

...ETA PARISKO GOBERNUAK GALDEA ONARTUKO DU?

Ez dut uste eginduen duen, ez dugu esperantza gogorrik, baina hurbil-



Ipar Euskal Herriko gizartean errota da Departamenduaren eskakizuna

tzen ari gara, eta egun batean egin beharko du edo bertzenaz, iparraldeko euskalduntasuna kontsumituko da Biarnesen eskutan eta Biarneseekin nahasiz. Hortan da gaitza. Duela berrehun urte gure nortasunaren zatikatzeko juntatu gintuzten Biarneseekin eta berrehun urtez

euskaldun gauza ainitz galdu dugu. Ez baditugu ondarrak galdu nahi Departamendua behar dugu sortu. Euskaltasuna eta ekonomia biak lotuak dira.

ZU DEPARTAMENTUAREN ALDE ZAUDE. NORTZUK DAUDE KONTRA ETA ZERGATIK?

Kostaldeko hautetsi haundiek. Hoiek herri ttipietako hautetsiek baino aunitz podere gehiago dute. Guretzat hori ez da sopotagarria, iduri baitu beren ontasunaren atxikitze Eus-

kal Herria ahazten dutela. Partidu politiko baten irabazten duen irabaziak atxiki nahi ditu, eta galtzen duen irabazteko esperantzarekin, eta irabaziz geroztik denak berdinak dira, denak atxiki nahi dute podere berri hori, podere sobera haundia, ondasuna, dirua... soberan. Eta hortan tronpatzen dira nik uste. Guretzat, ordea, printzipala da Euskal Herria euskaltasunaren atxikitzea.

❖ "Badakigu gure helburua zein den; Departamendu frantzesak. Hautetsien bozaldiak ikusterat ematen baldin badu badela gehiengo bat horren alde, gure galdea indartua izanen da"

Odola emateak tradizio luzea du gure inguruan

Medikuntzaren historian odol-kontserbatuaren transfusioak egiten hasi zirenetik hirurogei urte pasatu dira. Espainia mailan, errate baterako, Carlos Elozegi izan zen lehen aldiz odol-transfusio bat egin zuen medikua, Gerra Zibilean.

Hori baino lehenago, odol-transfusioak bakarrik besotik-besora egin ahal izaten ziren, ordurarte ez baitzen asmatu odola kontserbatzeko modu egokirik.

Denborarekin Hematologia eta Hemoterapia zerbitzuak hasi ziren antolatzen han-hemenka eta hoiekin batera odol-emaileen elkarteak sortu ziren. Nafarroan 1945ean antolatu zen Odol-transfusioen Zerbitzua eta 1958ko apirilaren 20an egin zuten lehen Batzar Orokorra Nafarroako Borondate Oneko Odol-emaileen Elkartekoek. Santiago Iturria Alzate izendatu zuten lehendakari kargurako.

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIAK:
KARMELE TOLOSA

nafarroako mendialdean Elizondokoa da Nafarroako Odol-emaileen Elkarateak duen delegaziorik zaharrena. Jesus M^a Urizek, Odol-emaileen Elkarateak gaur egun Elizondon duen delegatuak kontatu digunez, bere zaindaritzapean ditu kontserbatzen diren erre-

gistro-liburu zaharrenak, baina hara zer diren gauzak, liburu hoietan ez dela inon ageri sortze urtearen erreferentziarik. Nolanahi ere, gehiegi okertzeko arriskurik gabe erran daiteke duela 30 urte inguru jarri zutela martxan Elizondoko delegazioa Pantxo Lazaro delegatua buru zutela. Baztan osoa ez ezik, Urdazubi eta Zugarramurdiko odol-emi-

leak ere biltzen ditu bere baitan. Nafarroako Odol-emaileen Elkarteko Maria Oterminek adierazi digunez «gure elkartean betitik pisu handia izan duen delegazioa da Baztangoa, aspaldiko delegazioa izanagatik eta baita odol-emaile aunitz biltzeagatik ere». Duela 6-8 urte, Nafarroa osoan odol-emaileen kopuruak nabarmenki goiti egin

zuenean, bertze hiru delegazio zabaldu ziren eskualdean; lehenik Beran, gero Donezteben eta azkenik Lesakan. Leitzan delegazioa jartzeko saialdi bat baino gehiago egin dute, baina halere, momentuz ez da deus gauzatu, eta ez preziskiki odol-emailerik ez izateagatik. Maria Oterminek esplikatu digunez horren arrazoiak besotelakoa da. «Leitzan odol-

ODOL-EMATEAK ZENBAKIETAN

1995


ESKUALDEKO DATUAK

ODOL-EMATEAK 1995

DELEGAZIOAK

Elizondo	639
Bera	340
Doneztebe	278
Lesaka	198
Denen artean	979

Nafarroan Osotara 27.146



DATU KONPARATIBOAK

Banaz bertzeko odol-emaiteak / 1.000 Biztanleko

Eskualdean	44 odol-emaite / 1.000 biztanleko
Nafarroan	62 odol-emaite / 1.000 biztanleko
Espainian	33 odol-emaite / 1.000 biztanleko
Europako Komunitatean	44 odol-emaite / 1.000 biztanleko
Europako Iparrean eta Suitzan	73 odol-emaite / 1.000 biztanleko

INTERESEKO TELEFONOAK (Herrietako Delegatuak)

Nafarroako Odol Bankua - Iruñea: 42 24 90

BAZTAN (Jesus M ^a Uriz).....580007	DONEZTEBE (Juan C. Arregi).....450210
BERA (Mariatxo Ugartemendia)630207	LESAKA (Eukene Maritxalar)637136
BERA (Marilo Jorajuria)630343	LEITZA (Maria Artieda)510573



Nafarroan, herrialde garatueta bezala, odol-ematea egokitzen ari da kuantitate kontzeptuetatik kalitate kontzeptuetara

emaileen kopurua dextekoa da, bainan itxura denez, bata dela edo bestea dela, jendeak ohitura hartu du odola Iruñera joaten denean ematekoa».

Odol Bankua

Odol-emaileen Elkarteak sortu zenetik, harreman estua edukitu du Nafarroako Osasunbidearen baitan dagoen Odol

Bankuarekin. Gisa horretara, odol-emate eta transfusioarekin zerikusia duten gauza guztiak bere bitartez egiten dira. Nafarroako Gobernua arduratzen da, Elkarteko bazkideek ematen duten odola administratzeaz, eta bere esku dago horretarako behar diren bitarteko tekniko eta profesional guztiak jartzea odola atera, analisiak egin, biltegietan

gorde eta behar den tokietara igortzeko.

Odol-ematea, bistan denez, urrik egiten da, ez da dirurik pagatzen. Odol-emaileen Elkarteak dituen behar ekonomikoak hornitzea Nafarroako Gobernuaren esku dago oso-osorik. Elkarteko kidea den Maria Oterminek kontatu digunez, urteko aurrekontuaren % 80a odol-emailea

atenditzeko erabiltzen da (ogitartekoak, etabar) eta bertze % 20a elkartearen funtzionamendu gastuetan joaten da.

Gorputz-organoak

Azkenik, duten azpiegitura bertze edozein gorputz-organoren emaile izan nahi duenaren esku jartzen du elkarrekin eta beraiek arduratzen dira tramite guzietaz. ■

Odola emateaz gain, gorputz-organoren emaile izateko tramitazioaz ere arduratzen gara delegazioetan



Zenbat urte dira Elizondoko delegatua zarela?

Ez dakit seguru. Hasiera batean Pantxo Lazaroekin batera joaten bainintzen Juntako bileterara. Ez dakit... hamar urte!

Urteko funtzionamenduan, nolako aktibidadeak izaten dituzue?

Urtean pare bat aldiz etortzen dira odola biltzera. Lehen hiru aldiz ere etortzen ziren bainan orain,

nahikoa da 2 aldiz etorrita. Hortaz aparte, gorputz-organoren emaile izateko, Alcer-en alta emateko paperak ere tramitatu ditugu eta baita bizkarrezur-muina emateko ere. Azken honetarako, adibidez, Nafarroan 5 urtetan 1.000 emaile lortu nahi ziren eta bakarrik 3 urtetan lortu ditugu mila baino gehiago. Argi dago jendeak erantzuten duela.

Zer erranen zenion jendeari emaile izatera animatzeko?

Bueno... erran behar da Nafarroan gaur egun ez dugula odol

faltarik eta kanpora bidaltzeko zailtasunak izaten direla. Kontutan hartu behar da odola 25 egunez soilik kontserba daitekeela, ez du gehiagorako balio. Hortaz, odol-kantitate txikiagoa ateratzen zaio orain emaileari, bakanago eta kalitate hobekoa. Dena den Elkarteari komeni zaio emaile gehiago bilatzea. Dena den, odol-emailearen banaz-bertzeko adina gasetu egin da, 36 urte ingurukoa da gaur egun. Edozein kasutan ere, norbait animatuko bada aski du telefonoz deitzea.

**Jesus Maria
URIZ
TELLETXEA**

Nafarroako
Odol-emaileen
Elkarteko
delegatua
Elizondon

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa ke
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
Internet:
<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>
e-mail:
ttipi@encomix.es
e-mail:
ttipi@mail.sendanet.es

uzendaria: Joxemanuel Iri-
oi. **Publizitatea:** Miren Kar-
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
rozena, Joxemanuel Irigoi. **Ad-
ministratzioa:** Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
etxea, Juainas Paul, Kristina Bo-
n, Bittori Telletxea. **Berri-
mailak:** Joseba Azpiroz, Este-
an Arozena, Juana Mari Saizar,
inhua Mutuberria, Iban Isasi,
xema Aldabe, Patxi Otxandore-
a, Ixabel Maia, Josune Etxe-
este, Pablo Mendiburu, Joseba
garabide, Alizia Olaizola, Mar-
ari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-
el Gerendiain, Jacqueline, Eli-
abet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-
ar Txoperena, Pello Apezetxea,
itor Arozena, Kristina Boan.

olaboratzaileak: EHNE Nafa-
oa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-
er Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.
tipi-ttapa ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitatiko erranen eta eritzien eran-
tukizunik.

arakunde Laguntzaileak: Be-
a, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
an, Urdazubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako Eus-
ara Mankomunitatea, Malerre-
ako Zerbitzu Mankomunitatea,
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
ea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Euskara merkataritza munduan

Leitza eta Goizueta hasi gara fruituak ikusten



David ANAUT
Leitzako eusk. teknikaria

"Euskaraz bizi", askotan erabiltzen dugun esaldia: e-txean, lagunartean, udaletxean, lanean... euskara erabili. Baita erosketak egite-rakoan ere, merkataritza alor-rean eta herriko zerbitzuetan. Leitza eta Goizuetako estable-zimenduetan hizkuntza nagusia, hitzegiterakoan, euskara izan da beti. Idazterakoan, ordea, er-dara nagusi. Egoera aldatzeko 1994an hasi ziren lanean uda-lak eta horretan jarraitzen dute. Urtero bisita egiten da estable-zimenduetara eta eskaintza egi-ten zaie: errotulua euskaraz jar-tzeko dirulaguntza, euskarare-kin zerikusia duten gaietan ahol-kularitza eta itzulpen zerbitzua. Euskara ahoz nahiz idatziz be-ti erabiltzera animatzen ditugu, erabiliz normalizatuko dugula-ko bere egoera. Fruituak pixka-naka ikusten dira, baina pozik egon gaitezke (oraindik kon-forme ez gauden arren). Itzul-pen ugari egin da eta gauza as-ko euskaraz ikusten dira lehen ikusten ez ziren tokietan. 1994an Leitza eta Goizuetako errotulo komertzialen %44 euskaraz eta %42 erdaraz zegoen. Egun, %57 euskaraz eta %29 erdaraz.

Dendariontzat euskara ikastaroak antolatzea ongi iduritzen zait



Begoña ROZAS
Berako dendaria

Berriki papera bat-zuk hartu ditut etxean Bortzirie-tako Euskara Mankomunidadeak bidaliak. Egia erran ez ditut sobera begi-ratu baina badakit kanpaina hasi behar dutela orain, eta on-gi iduritzen zait. Gaur egun euskararen presen-tzia zenbatekoa den? Ba ez da-kit. Ni Berako beste dendetan apenas ibiltzen naiz eta ez da-kit nola dagoen asuntua. He-men, gure dendan, nik neukegi-ten ditut kartelak eta errotulo-ak, eta beti erdaraz. Noizbait pentsatu izan dut batzuk eus-karaz eta besteak erdaraz jar-tzea, baina beldur naiz gaizki idatziko ditudala eta ez naiz au-sartzen. Euskaraz ikasten ari naiz eta euskaldunak diren be-zero batzuk gogor egiten dida-te euskaraz solasteko. Dena den iraila euskara ikasten pasatu dut Doneztebeko barne-tegian, eta aurrerapen haundia egin dut. Dendariontzat euska-ra ikastaroak antolatzea ongi iduritzen zait baina ordutegia problema izaten ahal da. Noiz? Lan ordutik kanpo beharko du izan eta zaila izanen da denek posible izatea.

Kanpaina hauetan jende bixkorki juntatzen bada normalago hartzen dira



Patxi IRIARTE
Zaldia arg. Doneztebe

Joan den urteko esperientzia ona izan zen neretako. Dena den pixka bat gehixeago ere beharko dut oraindik. Ikastaroa egin nuene-tik, halere, gero eta gehiago era-biltzen dut eskuara, nahiz eta jendeak uste duen hemen Do-nezteben denda gehienetan er-daldunak garela. Joan den ur-tean dendari multxoak juntatu gi-nen, eta orain, batez ere jende gaztea, aisa gehiago solasten zaizkit eskuaraz. Joan den urteko kanpainatik gehien konbentzitu zidana ho-rixe izan zen: partizipazio haun-dia izan zuela. Inportantea da hori; jendea erraxago animatzen da eta ikastaroa bera ere hobea da. Gero, gainera, gauzak ere bertze modu batera ikusten di-ra, normalago bezala. Bertze dendariekin bilerak egiten di-renean ere, honen berri komen-tatzen zen, eta horrek laguntzen du gauzak normalago ikusteko. Problemarik haundiena gureta-ko ikastaroen ordutegia izaten da. Batendako ordu ona dena igoal bertze batendako ez da ona izaten. Baina tira, ordua eta hi-labetearen kontua kenduta, on-gi.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzealde Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

IRAKURLEAK MINTZO

Karrape irratiko langileei:

Gutun hau, Karrape irratiko langile izan direnei erantzuteko idatzi beharra daukat. Nahiago nuke irratian bertan erantzun ahalko bazu, baina beraien etika eta gizatasuna nolakoa den erakutsiz, irratiazen azken programaren azken segundorak aprobetxatu zituzten euren "esker ona" adierazteko. Komunikabide publiko bat erabili zuten pertsona baten aurka egiteko, erantzuteko inolako aukerarik eman gabe. Lotsagarria eta penagarria iruditzen zait, baina zuen estiloa ezagututa, ez harrigarria. Gure harremanak txarrak izan dira. Hala ere, euskara zerbitzuak behin baino gehiagotan itzulpenak egin dizkizue (zuen lanpostuaz jabetzeko lanerako euskara maila egokia eskatu zitzaizuen arren), Diputazioan aurkeztu behar zenituzten txostenak prestatu dizkizue, zenbaitetan programazioan zenituzten hutsuak bete dizkizue (bi ordu lehenago abisatuta ere), irratia Bazarlarako antenan duen entxufeak aldatu du (ez omen da zuen lana. Euskara teknikarion espezialitatea izanen da irratiko antenatan ibiltzea, nonbait), eta abar. Guzti horiek ez dira euskara zerbitzuaren la-

nak, baina zuekin alperrik ez eztabaidatzeagatik edo, egin egin ditugu. Zuen jokabide koldarrak erantzuteko eskubidea kendu zidan eta TTPI-TTAPAREN bitartez erantzutera behartuta nago. Gauza asko dauzkat esateko 3 urte hauetan irratia izan duen funtzionamenduaz. Oraingoan utzi egingen ditut. Nahi baduzue irratiazen funtzionamenduaz eztabaidatuko dugu, publikoki edo pribatuan (nahi duzuen), baina hala nahi baduzue, espero dut hurrengoan gai izanzen zaretela gauzak aurpegira esan eta gutxienez erantzuteko eskubidea errespetatzeko. Udalak Karrape Irratia martxan jarri zuen, garai horretan euskara zerbitzuaren eta euskara batzordearen zegoen jendearen bultzadari esker. Leitzan irratia euskaldun baten proiektuan sinisten jarraitzen dugunez, lehenbailehen berriz martxan jartzeko lan egingen dugu, hurrengo etapan, irratikoaren eta ingurukoaren arteko harremana hobetuko izan den delakoan.

DAVID ANAUT
LEITZALDEKO EUSKARA TEKNIKARIA



OHARRA:

Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatziz duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.

Zer da Alardea?

Gertaera historikoak eraberritzen dituela ta ekitaldi giza-militar-erlijiosoa dela aipatzean badirudi denon oneritzia lortzen dela, baina orain arteko artikulua ezberdinetan, aurtengo irailaren 8an gertatu diren iskanbilen inguruko artikuluetan oinarritzko argibide gutxi irakurri ondoren eta ohi bihurtzen ari den gisa, hitz edo begirada desegoki batzuek nabarituta, nagusiki nere herikideen jaia eta eguneroko frustrazioetatik ihes egiteko denbora-espazioko gurenik aproposena dela diot. Dena dela, honako funtzio hauek beste herrietan ere betetzen dira, baina Hondarribiko kasuan ia bestelako da, ezaugarri bereziak bait ditu, hala nola: aipatutako izaera militarra-jantziera, armak, jerarkia... eta erlijiosoa -'novenak', Salve, elizgizonen partaide-tza, arbasoen promesa...-, aspektu erritual-sinbolikoak eta batipat, herritarren

identitatearen azkenetariko ikurra da -euskara oso gutxi erabiltzen delako-, honengatik, emakumezkoek partehartzaile aktibo modura agertuz gero, gure ideia sisteman irauli egiten dira, txikietatik gutxigorabehera pareka daitekeen Alardetik egundaino bere giza garrantzi izugarrian eta honen errepresentazioan -emakumezkoak kantineraz edo txalotzen/sukaldean- ikasi egin dugulako, beraz, aldaketa onartzea kostatu zait eta nere konpainia den Gora Ama Guadalupekoan gaia agertzean, Bidasoaldeko Emakumezkoen idazkia-tamalez, gaztelaraz- irakurri eta gero, eztabaidatzekoan dardarez ene baietza azaldu nuen, azken finean eskubideen aurrean ausardiaz amore egitea biderik zuzurrena delakoan bait nago. Edozein modura, ados ez bazaude(te) ulertuko dut, baldin eta gizabanakoaren interesak defendatzeko aitzakia ez bada. Burutapen hauek bukatu bezain laister konponketak bilatu eta elkarriketa bideak irekiz, gure arteko zauriak konponduko diren itxaropenan amaitzen dut. Mehatxurik ez, hitzegian bai!

RUPERTO OLASO
ENA: 15.245.116



LESKA



Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Bixente Leitzatik

Gero eta ikasle gutxiago eskoletan

Naturak inposatutako betebeharrak bailitza hasi zaigu, onerako edo txarre-rako, ikastaro berria. Urruti daude Rousseau-ren hitzak *"Hamabi urterekin Emiliok ez du liburuen ideiarik izanen"*. Gaurko umeak eramaten duen liburu zama ikusirik, ez dirudi arrakasta haundirik jaso zutenetik naturtzale frantsesaren asmoek. Naturaren legeak haustezinak izaki ordea. Landare berri gaixo hori horrela kargatu didazue?, aurretik zean ikasle gutxiago izango duzue zuen eskoletan, dio ezker begiaz keinu bat eginez LOGSEK aberastu nahi izan dituen argialetxe malaletxe guztiei. Eta geroztik, hortxe dabilta liburu saltzaileek Jehovaren Lekukoek baino buelta gehiago emanez

Ez gara alferrik ibili koltxoia bizkarrean, batzuetan balkoira besteetan belatsorora, ilargiaren arabera, etxea alabaz josia eta mutil baten bila... Eskerrak garaiz ezkondu ginela, bestela jai genuen.

bazter guztietan. 370 ikasle daude aurten Leitzako eskoletan 3tik 14 urtekoetara: 77 Eskolaurrean, 194 Lehen Hezikuntzan, 99 DBHko lehen zikloan. Orain zazpi urte 530 ziren. 59 irten dira eta 26 berri hasi. 85 ume jaio ziren 1977an, orain bost urte 19, dela lau urte 21. Eta geroztik 20 inguru. Hau mundu, esango luke ezkurarrak; hamazazpi-

garren mendean, gure Herria 1.500 auzotara iristen ez zenean, gehiago jaiozen ziren Leitzan. Ikus adibide bezala: 27 ume 1676an, 54 haur 1684an, 45 jaiotze 1687an.

Beste aldaketa xelebreak ere eman dira: beti neska kopurua, batzuetan beste, mutilena baino haundiago izaten zen. Aurten 13 urte berteke dituztenen artean, 8 neska eta 38 mutil daude. Ez gara alferrik ibili koltxoia bizkarrean, batzuetan balkoira besteetan belatsorora, ilargiaren arabera, etxea alabaz josia eta mutil baten bila... Eskerrak garaiz ezkondu ginen, bestela jai genuen.

Aldaketak aipatzean, ezin baztertu izenei dagozkienak. Eskatu edozein izen zerrenda eta, ez duzu jakin neskak ala mutilak diren bertan azaltzen direnak: Erlauntza, Aiuri, Iraitza, Iraultza, Aberri, Zuhaitz. Lehen sikira, Bixente eta, beste gauza zen. Egia da bai behin goizutar batek *"Bixente, kakabixente, zakurraren buztana tente!"* oihukatu zidala. Baina badakigu nola diren

goizutarrak maxika hasten direnean. Hala eta guztiz, telebistan entzundako izen batek hautsi zizkidan eskema guztiak. AKETZ, halajaina. Harro behar du egon aitzak bere zerritasunaz, ez noski zerrikeriaz, seme gaixoari Zerri deitzeko. Beste hark esango lukeena: *"Hok ez baitie jende"*. Lehen gehiegikoa izanen zen, baina, oraingoa ere...

Beñardo ARRETXE Bortzirietako euskaltegiko irak.

Euskara bihotzean, ez da aski...



Lehengobatean ostuan nengoen lagun batekin solasean, EUSKARAZ, aspaldiskotik

egiten dugun bezala. Hirugarren lagun bat agertu zen, bion ezaguna, eta honek, nirekin euskaraz solasean egin ondoren, erdara garbi-garbi hitzegin zuen nire lagunarekin. Hirurak ginen euskaldun GARBIAK baina, ez dakit zergatik, haiek biek ez zuten etxean ikasitako mintzaira erabili elkar konprenitzeko. Norbaiten beldur ote ziren? Nire beldur ez behintzat, nahiz eta momentu hartan gustora eman

nion bakoitzari belarri zokoan zapateko bana, lehengo maistru-maistrek eskolan EUSKARA solasegiteagatik egiten zuten bezala. Ikasketak erdaraz egitearen ondorioa? Ez, ez da posible, orduan nik ere haiek bezala egiten nuen eta gainera EUSKARAZ ikasitako batzuk ongi eta erraz aski aritzen dira erdaraz.

Galdera eta erantzun ergel gehiago asmatzen ahal dira baina hau ez da broma, holako gertaerak edo igoaltsuak noiznahi gertatzen baitira Nafarroako mendialde honetan. Eta honek niri bihotzean min ematen, EUSKARAZ solasegin eta konprenitzen duten pertsonak elkarrekin erdaraz somatzean, alegia. Arestian beldurra aipatu dut eta horixe sentitu-

ko zuten gure antzinakoek, hizkuntza arrotza indarrez inposatu eta etxeko mintzaira indarrez debekatzen zieten. Egun ez da holakorik gertatzen, modu berean, behinik behin, ez.

Infernurik baldin badago, handik, su tartetik, gustora egiten du irri general zapaltzaile famatu harek, batez ere, erdara erabiltzeko "BIZIO" eta "KOMODIDA-

Infernurik baldin badago, handik, su tartetik, gustora egiten du irri general zapaltzaile famatu harek, batez ere, erdara erabiltzeko 'bizio' eta 'komodidade' horiek horren nabarmen ikusten dituen euskaldunen artean.


DE" horiek horren nabarmen ikusten dituen euskaldunen artean.

Bertalde, EUSKARAK sekulako pausuak eman ditu aitzinerat azkeneko hogeitau urteotan bainan, hala ere, hagitz lan zaila izanen da bortzehun urtez galdutakoa berreskuratzea. Zailagoa oraindik, dakigunok ez badugu elkarrekin erabiltzen.

Orduan, non dago erdararen "ERITASUN" hori baztertzeko erremedioa? Ba... erraxa, geure buruetan. Nire lagunari erran nion bezala: *"nirekin bezain ongi, bertze edozein EUSKALDUNEN EUSKARAZ mintzatzeko 'balentria' eta 'pazientzia' izatea"*. Eta finitzeko, ...EUSKARA bihotzean, ez da aski..., bertzeren bertze behar da buruan eta mingainean.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunkaria 96-X-11

«Lehen gizaldiz gizaldi bertako kultura jasotzen zuen jendeak eta lustre ofizialari halako ezeptizismoa zion; gaur kontrakoa gertatzen da, bertakoa erabat ignoratu egiten da eta kanpotik datorren informazio pasakor eta ergel horri begira jarri da jendea».

Patziku PERURENA
Goizuetako idazlea.
Egunkaria 96-X-11

Irratia bertan behera uzteko erabakia hartu»

Anabel ALDUNTZIN
Karrape Irratiko esataria.
Nafarkaria 96-X-18

«Bertze toki batzutan hitz bereziak franko galdu egin dira, eta hemen, oraindik aunitz erabiltzen dire»

Mariano IZETA
Idazle Baztandarra.
Diario de Noticias 96-X-9

«Leitzako udalbatzak ez du inoiz Karrape

◆ **Zer ikasketa mota egin dituzu?**

◆ Idazkaritza.

◆ **Irlandan igarotako urtearen balantzea?**

◆ Oso ona, merezi du joateak.

◆ **Diferentzi nabarmenik ba al da Irlandako eta Euskal Herriko mutilen artean?**

◆ Ile gorria, azala zuria eta 'pulpo' xamarrek dira hangoak.

◆ **Bihotza osorik ekarri duzu Irlandatik?**

◆ Ez, puska bat han utzi dut.

◆ **Amets erotikorik egiten duzu?**

◆ Gauero.

◆ **Felipe printzearentzat andrerik egokiena?**

◆ Amaia Kapelgorrikoa.

◆ **Zer iritzi duzu Estefaniaren gizonak egindakoaz?**

◆ Ai zerria, zer ongi pasatu zuen. Ederki egin zuen.

◆ **Ezkerra, erdia edo eskuina?**

◆ Goia eta behea.

◆ **Bakailua, rocka edo trikitixa?**

◆ Bakailua ezik, denetatik.

◆ **Kezkatzen al zaitu eliza itxia egoteak?**

◆ Itxia al dago, ba?

◆ **Zer eskatuko zenioke herriko udalari?**

◆ Idazkari postua.



M^a Jose NARBARTE
Goizuetako gaztea

ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa

☎ 63 11 06

BERA

Boda eta banketeak ematen dira

AYLA

ARGAZKILARITZA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna
Bidasoa karrika, 8
BERA ☎ 630075



ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

☛ Zolak jartzen ditugu:

- Kortxoia
- Moketak
- Parketa
- Sintasola

☛ Gure kolokazio tailerra daukagu

☛ Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia 1 • Tel. 631137-630941 • **BERA**

Komertzioetan euskara bultzatzeko kanpaina

Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak antolatu du

Aitzinetik Leitzaldean eta Malerrekan egin den gisara, Bortzirietako establezimendu komertzial guzietan euskararen presentzia bultzatzeko egitasmoa gauzatuko du Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak Siadeco erakundearen laguntzaz, denda denda eginen diren bisiten bidez.

Kanpaina honen helburu nagusia "bizitza sozialean horren garrantzitsuak diren establezimendu komertzialetan euskararen presentzia ahoz nahiz idatziz ziurtatzea" izan da. Horretaz gain, enplegatuak euskara maila hobetzea eta barne nahiz kanpo harremanak euskaraz garatuko dituen establezimendu sarea sortu nahi da.

Egitasmo hau aitzinera eramateko denda guziaz bisitatuko dituzte bi fasetan. Lehenengoan, urriaren bigarren hamabostaldian egiten ari dena, kanpainaren aurkezpena



Denda bakoitzeko euskararen egoerari eta premiei buruzko informazioa jasoko da

eta datu-bilketa egingen da. Bigarren fasea berriaz, azaroan eta abenduan egingen da eta eskaintza zehatzen proposamena eta konpromezuen onarpena bilatuko da. Dendariek onartzen ahal dituzten eskaintzen baldintzak eta hartu nahi dituzten konpromezu zehatzak hitzarmen batean bilduko dira eta Siadecok

aitzinerara begira segitu beharreko lan-ardatzen zehaztapena egingen du.

Euskara Mankomunidadeak hiru eskaintza nagusi zuzenduko dizkie dendariei: itzulpen zerbitzua dohainik, euskarazko ikastaro arrunt eta bereziak eta, azkenik, hizkuntz aholkularitza euskarazko harreman sarearen antolaketari begira.

Hamar zenbaki dituzte jadanik estatu frantseseko telefonoak

Urriaren 18tik aitzinera Iparraldeko telefonoak hamar zenbaki dituzte, orain arteko zenbakiei aitzinetik 05 jarri beharko baitzaie, Iparraldetik bertatik hots egiteko. Hegoaldetik deitzeko ere zenbaki bat gehitu behar zaio: 07-33 markatu ondotik 5 zenbakiari eman behar zaio, gero zortzi xifra-ko zenbakia markatuz. Iparraldetik Hegoaldera deitzeko ere aldaketak izan dira. Orain arte, estatu arteko zenbakia 19 zen bitartean, aldaketen ondotik 00 markatu beharko da seinalea hartzeko. Telefono porta-

tilek ere beraien kodea izanzen dute estatu frantses osoan, 06 zenbakia.

Aldaketa, telekomunikazio merkatuaren zabaltearen ondorioz eta Europa eta mundu mailako arauak egokitzearen ondorioz da. Eraberean, telefono sarea ez da Frantziako estatuko monopolioa izanzen 1998ko urte hasieratik aitzinera eta sektore pribatuak merkatu zabalagoa izanzen du hamar zenbaki-ko telefonoari esker.

Estatu espainolean datorren urtean aldatuko omen dira telefono zenbakiak eta 9 xifra izanzen dituzte.

TELEFONO ZENBAKI BERRIAK IPARRALDEAN

Estatu frantsesa

Estatu frantsesa bortz zonaldeetan banatu da, bakoitza bere zenbakiarekin



IPARRALDE



E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

BOTXO ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA



SAROBEn okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Lurraren Egunak hamargarren edizioa beteko du igandean

Arrats partean Gozategi taldearen emanaldia izanen da

KRISTINA BOAN

Igande honetan bu-
rutuko da Lurraren
Egunaren hamargarren
edizioa eta horretarako
ekitaldiz betetako egi-
taraua prestatu dute Gu-
re Txokoa elkarteak, Be-
rako guraso elkarteek,
Bortzirietako euskalte-
giak eta Erausian gaz-
teen euskara taldeak,
udalaren babespean.

Goizetik Bera triki-
tixa eta Zangotzako
Rocamador taldeko
dantzariak arituko dira
giroa berotzen. Urtero
bezala, eskulan eta ba-
razki erakusketa, Bor-
tzirietako produktuen
salmenta eta gasna
lehiaketa izanen dira.
Lehiaketa honen sariak
arratsaldeko 5,30etan
banatuko dira Altzateko
plazan. Arratsaldeaz, gai-
nera, eskulan erakus-
ketak segituko du eta ta-
loak eta sagardoa ba-
natuko dira. Egunari
akabera ederra emate-
ko, Gozategi trikitixa
talde famatuarekin dan-
tzaldia izanen da arrats
partean Altzateko pla-
zan.



Altzateko kaperaren mendeurrena

Altzateko San Antonio kaperaren 100. urteurrena gogoratuz, hainbat os-
pakizun burutu ziren Pilarikako asteburuan. Larunbat eta igandean argaz-
ki zaharrak izan ziren ikusgai. Igandean meza izan zen eta ondotik dantza
saioa. Garai batean eskolapioen ikastetxea izan zen eta ondotik mariste-
na. Bertan ikasten aritu ziren hainbat lagun ere hurbildu ziren ospakizu-
nean parte hartzera.

Argazkia: GOIKO



Josu Unson

preso beratarren
epaiketa berriz ere
gibeleratu dute. Sei-
garren epaiketa deial-
dia zuen urriaren
17an, baina tratu txar-
rei buruzko infor-
mea eman behar
zuen forensea bajan
zegoen. Oraindik ez
dakite zer egunetan
segituko duen epai-
ketak. Jakina denez,
Josuren tratu txarren
salaketa Amnesty
International era-
kundera iritsi zen.

%5ean jautsi arren, Udalaren zorpetze maila kezkarria izaten segitzen du Nafarroako Kontu Ganbararen arabera

Berako Herriko
Etxearen zorpetze mai-
la %5ean jeitsi zen
1995ean, Nafarroako
Kontu Ganbarak egin-
dako txosten baten ara-
bera. Idatziaren arabe-

ra, "1995ean udalak in-
bertsio haundiak egin
zituen, aurreko urtean
baino %325 gehiago".
215 milioiko inbertsio-
ak egin ziren eta ho-
rretarako 45 milioiko

mailegua eskatu behar
izan zuen Herriko
Etxeak. Honek, udala-
ren finantza karga haun-
dituko du, nahiz eta aur-
ten gehiago aurreztu
den, "batez ere tasen

bidez gehiago bildu de-
lako". Zorpetze maila
bortz puntutan jeitsi da,
diru sarrera arruntei es-
ker, eta gaur egun %24-
ean dago, "kopuru kez-
kagarria oraindik".

Dia %

**Autozerbitzua
deskontua**

**Hamabostero
ofertak**

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta
barnizatzen dittut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA

Gazte Eguna ospatuko da azaroaren lehen egunean

Jarraik antolatu du herriko zenbait ostaturen laguntzaz

AITOR AROZENA

Azaroaren lehen, ortzirala, Lesakako Jarraik, zenbait ostaturen laguntzaz antolatutako Gazte Eguna ospatuko da. Arratsaldeko 6etan antzerkia, kale animazioa eta txaranga izanen dira. 7etan bertso saioa Jon Maia, Unai Iturriaga, Esteban Xxxxx eta Nerea Bruñoren eskutik. 8etan kalejira-manifestazioa burutuko da *Euskal gazteria askatu* lelopean.

9etan bideoak izanen dira ikusgai eta gaueko 10etan kontzertu handia, *Koma*, *Kashbad* eta *EH Sukarra* taldeekin. Lesakako Jarraik adierazi duenez, "gazteriak jasaten dituen bizi bal-



Kashbad, Gazte Eguneako kontzertuan izanen den taldeetako bat

dintza txarren kontra lan egitera animatzea da egunaren helburua".

Hiru urte gartzelan

Ortzegun honetan,

urriak 24, hiru urte beteko dira Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe atxilotu zituztela. Hori dela eta manifestazioa

izanen da ortzegunean eta Sastrinera mendi martxa larunbatean, arratsaldeko 4,30etan plazatik abiatuta.

Seigarren argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea zabaldu du Beti Gaztek

Seigarren urtez argazki lehiaketa antolatu du Beti Gazte elkar-teak, parte hartu nahi duten afizionatu guziei zabaldua. Lanak, ohiko sistema erabiliz, Beti Gazte elkartera igorri

beharko dira azaroaren 9a baino lehen. Epai-mahaiaren erabakia azaroaren 17an jakinen da eta egun horretan hasita abenduaren lehena arte erakusketa izanen da elkartean. Lehen sa-

ria, 20.000 pezetakoa izanen da, bigarrena 15.000 pezetakoa eta kirol argazki onenari ere 15.000 pezeta emanen zaizkio.

Xehetasunak Beti Gazten (627558).

Doinu tropikalak larunbatean Kasinoan

Larunbaten, urriak 26, *Bossanegra* taldeak kontzertua eskainiko du gaueko 10etan Kasinoan. Ekitaldia abesbatzak antolatu du udalaren laguntzaz. Arte eta Kultura kanpainaren barnean.

288 milioiko inbertsioak eginen dira hiru urteotan

Europako komunitateak siderurgi-industria gainbeheran duten eskualdeei zuzendutako "Resider II" plangintzaren barrunean 288.525.000 pezetako inbertsioa egitea espero da herrian, zortzi proiektu ezberdinetan banatua: Bittiriako urbanizazio lanen bigarren fasea 27.570.000 pta; Nabaz eta Katazpegi auzotako ur-hordidura 115.760.000 pta; Frain auzorako bidea 34.040.000 pta; Alkaiagako industrialdean enpleguari laguntzeko zentrua 24 milioi; kirol instalazioen hobekuntza (futbol zelaia) 60 milioi; Toki garapenerako agentzia 12.765.000 pta; siderurgi-eskualdeekin esperientzien trukaketa 2.390.000 pta eta bidaxka turistikoaren plana 12 milioi.

Dirutza horren erdia (144.262.000 pta) Europako komunitateak paratuko luke, Nafarroako komunitateak 109.981.000 pta (%38,12) eta Lesakako udalak gainerako 34.282.000 pezetak (%11,88). Lanak aurtten, 1997 eta 1998an egitea aurre ikusten da.

ORBELA gimnasioa

Urriaren 4ean

96-97 denboraldi zabalpena

- Squash
- Sauna
- Hidromasaje bainua
- Muskulazio-aretoa
- Masaje orokorra
- Kirol masajea

Antoiu 21, behea (Osasun Zentroaren ondoan)

© 637950 • LESACA

BEREAU

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESACA



INAXIO JANARIDENDA

Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESACA



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESACA

KATTU

ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak

© 627573 • LESACA

ETXALAR

Saratar eta etxalartarren arteko topaketa azaroaren 2an egingen da

Etxalarren, arratsaldeko seietan hasiko da besta

PELLO APEZETXEA

Bi herrietako gazte-ek plazan burutuko duten joko saila, Urruñako txarangaren soina, eta afaria izanen dira bestaren alderdi nagusiak. Nagusi-nagusia lagun giro eta umore ona izanen da, noski, topatzeari egiazko mamia eta bizitasuna horiek emanen baitiote.

Bertso eskola

Iaz izan zen Etxalarren bertso eskolaren lehenbiziko urtea. Fin ibili ziren parte hartzaileak eta gogoz bukatu. Baita gogoz hasi ere bigarren urtea. Izan ere, lehenengo urteko guziek segitzen dute, hamar bat denetara. Hori dela eta, bertso saioaren bat antolatzekeo intentziorik da biltza. Xehetasunak georago jakinen ditugu.



Kultur Egunak

Guatemalari buruzko solasaldia arrakastatsua izan zen, 50 bat lagun bildu baitziren eskola zaharretan Jon Sarasua, Amaia Antero eta Kontxi Erroren erranak aditu eta diapositibak ikustera.

Argazkia: Joxemanuel

Eskulanetarako ikastaroa

Helduentzako ikastaroak ez dira hain aisa eta ugari izaten ahal. Antolamendua eta di-

raguntzak aldatu eta gutitu egin ditu Gobernuak. Ondorioz gertatu da, behar bada, esku lanetako ikastarorako 40 lagun biltzea, beraietatik batzuk inguruko herrietakoak. Bi talde egin behar izan dituzte, eta orduak bien artean banatu, talde bakoitzak 20ko kopurua ez baitu

gainditzeko ahal. Dena den, bi hilabete iraunen duen ikastaroan, astean talde bakoitzak hiru ordu sartuko ditu.

Herriko bazterrak moldatuko dira

Laister hasiko dira herriko zenbait bazter moldatzeko eta edertzeko lanak. Hiltegi ondoak; pilotaplazako gibelaldea, eta Dendararena eta Zabaltea arteko eremua; Arrineko xokoa; Jauregiko azpiko aldea; eta Errotagarairako bide bazterreko paretak dira lan nagusienak.

Pilarika eguneko leherketak

Goizean goizetik hasita, izan ziren hots zaparradek, metraileta tiroak zirela, petardoak zirela, zer errana sortu dute bazterretan, egunkarietan ere notizia izan baita.



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA



F. MARITORENA

Mendi eta lorategi garbiketak

Tfnoa.: (948) 63 11 99 - **BERA**

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 **LESAKA**

TOP CLASS ENGLISH

INGELES AKADEMIA

Alan Leiper
ZUZENDARIA

ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.
ESKOLA LAGUNTZA

4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK

Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak

LESAKA • Biltiria Plaza 6, Behea • ☎ 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)



**ETXALARKO
HERRIKO
OSTATUA**

☎ 635290

**Udazkeneko
Menu berezia**

Aza pastela odolkiiz betea
pikillo eta bertako ilar-saltsan
Onddo nahaskia
Etxalarko usoa
Oreñ eskalopinak masusta
saltsan
Gaztain pastela
Errioxa ardoa, ogia eta kafea
2.900 Pla.

IGANTZI

Ekitaldi interesgarritz beterik heldu zaizkigu Kultur Egunak

Heldu den asteartean hasi eta igandera arte iraunen dute

OSKAR TXOPERENA

Aste mugitu xamarrak heldu zaigu hurrengo, udazkeneko bezala, Kultur Egunetako garaia etorri zaigu eta. Aurten, esfortzu handia egin dute herriko erakunde guzitiak (Euskara batzordea, udala, Biltoki, guraso elkarteak, zahar-etxeak...) egitarau hau prestatzeko.

Asteartean, urriak 29, arratsko 7,30etan etxeko landare, arbol eta baratziari buruzko solasaldia emanen du Jagoba Rekondok zentzuan.

Asteazkenean, hilak 30, HIES edo SIDARI buruzko hitzaldia emanen du Harribeltza elkarteak ordu eta leku berean.

Ortzegean, 5etan *Liburulariak* antzerki



lax jende bizkorki ibili zen Kultur Egunetan. Hain gauza interesgarriak antolatuz gero berriz ere jendeak parte hartuko du

emanaldia eskainiko du Trokolo taldeak. Gaueko 10,30etan *Blues Thorpes* taldearen kontzertua.

Azaroaren lehenean Ardanbera fanfarrea arituko da 8,30etan.

Azaroaren 2an, 4,30etan haurrentzako jokoak izanen dira eta gaueko 9etan afari txistosoa Txiskolako txapeldunekin. Afarirako txartelak salgai daude dendetan.

Azaroaren 3an, azkenik, bertako produktuen feria izanen da egun osoan zehar eta arratsaldeko 7etan gaztain jatea, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien bertsolariekin.

Ikastaro sukarra

Gogo haundiarekin hartu ditu jendeak alde guzietatik etorri zaizkion ikastaro eskaintzak. Euskarazko hiru talde plantatu dira: bat zazpi lagunekoa EGA mailan, bertze zazpi 1. urratsean (deus ez daketinak) eta azkenik bortz guraso eguberri arteko ikastaroan.

40 emakumek izena eman dute eskulantgintza ikastaroan eta bi taldetan banatu behar izan dituzte, talde bakoitzak astero bi ordu t'erdiko ikastaroa izanen duelarik. Gimnasia, berri, astelehen eta ortzegean ariko dira 8,30etatik 9,30etara hamar lagun. Hemen izena emateko aukera bada oraindik.

'Igantz' jatetxearen inaugurazioa

Urriaren 31n izanen da arratsaldeko 7etan Merkatenean egin duten jatetxe eta ostatu berriaren inaugurazioa. Igantzi izanen da bere izena, eta, bestetan irekia egon bazen ere, aipatutako egunetik aitzinera hasiko du bere egiazko martxa.



**ALBERGEA
JATETXEA**

© 634179
ARANTZA

JOSE AGERRE

PINTURA LANAK



- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Gotel 
- Moketa eta zintasol

© 908. 97 93 06 • 637957 • **IGANTZIKO BENTAK**



ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- | | |
|----------------------------|---------------|
| - Daniel Hechter | - Bonaventure |
| - Caramelo | - Replay |
| - Island | - Diesel |
| - Genfis | - Levi's |
| - Marithe Fran ois Girbaud | - Lacoste |

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 **IRUN**

ARANTZA

170 milioi pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Horietatik ia 108 milioi inbertsio ezberdinetan joanen dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

170.130.700 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu aurtengo udalak, baztarrean onartutako aurrekontuaren arabera.

Gastuak gehien bat inbertsioetan egingen dira, 107.872.846 pezeta erabiliko baitira lan ezberdinetarako. Langileen soldatetan hamalau milioi t'erdia gastatuko dira. Diru sarreari dagokionez, haundiena subentzioetatik ailegatuko da (81 milioi pasatuak), ia 35 milioi tasen bidez eta 13,5 milioi zergen bitartez.

Iratzelaia

Aurtengo lehen aldiz herriko iratzelaia kanona kobratzen hasiko da. Hektarea bakoitzeko 1.000 pezeta ordaindu beharko da.

Udal langile berria

Herriko lanetarako langile berria hartu du udalak, lehendik zegoenak utzi egin baitu. Jesus Almandoz izanen da langile berria eta lehengoaren egin beharrak izanen ditu: bi-deak garbitu, pintura lanak... Kontratua urte bukaera artekoa dauka.

Bertsotzaria ospatu dute ehiztariek

Urtero bezala, aurtengo ere ehiztariek bertso bazkaria ospatu dute igande honetan, urriak 20. Bagatxar mendiko txabolaren gonbidatutako bertsolariak Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano izan dira. Ehiztairek usotarako ez ezik, bertsolarako eta otorduetarako afizioa badutela nabari da, ikusi bertzerik ez baitago nolako umorean pasatu zuten igandea.



Ehiztari txabolaren elkartuko direnak ederki pasatuko dute igandeko bertso bazkarian

Artxiboa

GazTE eGUnA

azaroak 1 ostirala

6 tan

Antzerkia, Kale animazioa eta txaranga

7 tan

BERTSO SAIOA:
Jon Maia, Unai Iturriaga, Nerea Bruño eta Esteban

8 tan

KALEJIRA MANIFA
euskal gazteria askatu

9 tan

BIDEOAK

10 tan

KONTZERTUA

KOMA

KASHBAD

EH SUKARRA

ANTOLATZAILE:
LESAKAKO

LAGUNTZAILEAK:
Atxaspi, Saski Zar, Kattu, Arrano, Haizegoa eta Saski Berri ostatuak

SUNBILLA

Baztan Bidasoako V. areto-futbol txapelketarako izena ematen ahal da

Datorren urteko hilbeltzaren 4ean hasiko da

IXABEL ETA JOSUNE

1997ko hilbeltzaren 4ean hasiera emanen zaio Baztan-Bidasoako areto-futbol txapelketaren bosgarren edizioari. Partiduak Sunbilla eta Doneztebeko frontoietan eta Elizondoko polikiroldegian jokatu-ko dira.

Parte hartu nahi duen guztiak abenduaren 12ra arteko epea izanen du izena emateko eta lau telefono izanen ditu aukeran: 451664, 450459, 450371 edo 450154.

Hasierako fasean ize- na eman duten talde guztiak bi multzotan banatuko dira. Talde bakoitzeko lau lehenbizikoak final laurdenetarako txartela eskuratu-ko dute, gero finalerdiak eta finala izanen dira. Sarietako dagokienez,



Ezkontza zibila ospatu zen Herriko Etxean

Urriaren 19an, eguerdiko 12etan udaletxean ezkontza bat zibila ospatu zen. Ezkongaiak Genaro Gandara eta Rakel Urtxegi izan ziren eta alka- teak ezkondu zituen. Udal honekin Herriko Etxean egiten den bigarren ezkontza da. Ondoren, bazkari ederra egin zuten intimitatean Elor-Txuri jatetxean. Zorionak bikote!

lehenbizikoak 50.000
pezeta eta sari nagusia

eskuratuko du, 30.000
pta eta trofeoa bigarre-

nak eta 20.000 pta eta
trofeoa hirugarrenak.

Bidasoako Trena

Urriaren 15ean hasi- ta 27ra bitarte, Bida- soako Trenari buruzko erakusketa burutzen ari da eskolan. Ordutegia, asteartetik ortziralera arratsaldeko 6etatik 9etara eta asteburuetan goizeko 11etatik 1etara eta arratsaldeko 5,30eta- tik 8,30etara izanen da. Gai honekin segituz, hi- tzaldia ere izanen da Ulibeltzak elkartearen or- tzirak honetan, urriak 25, arratseko 8etatik aitzin- era. Trenbidearen gaurko egoeraz eta etor- kizunerako asmoaz ari- tuko da Mikel Albisu.

Feria astelehenero

Astelehen goizetan feria bat egingen da me- dikuaren etxe parean. Arropa, zapata, fruta, aulki eta bertzelako pos- tuak paratuko dituzte.

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

**muñeca
de Trapo**



Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55



**Kiropraktika kontsulta
zabaldu dugu**

CLAUDE MENARGUES

KIROPRAKTIKA DOKTOREA eta U.S.A.
Espainiako Kiropraktika Elkarte-ko kide

Madre Vedruna 1, 1. eskal. - 4. ezker
Tel. (945) 23 43 42
01008 GASTEIZ

Urbietan 26, 1. ezker
Tel. eta Faxe: (943) 43 17 60
20006 DONOSTIA

**ETXANDI
TXOKO
erretegia**

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

MALERREKA

Kirol taldeentzako milioi bateko dirulaguntza eman du Udalak

Bertzalde, liburuzain lanpostua ez da finkoa izanen

TXEMA ALDABE

Herriko Etxeak milioi bateko subentzioa emanen dio aurtengo herriko kirol taldeei. Zehazki, Erreka kirol taldeak 696.689 pezetara soko ditu, 139.991 laxoa taldeak eta 163.323 Txaruta pilota elkarteak.

Erreka elkarteak 1995-96 denboraldian honako aurrekontua izan du: 1.068.962 pezetara eskubaloiak, 273.988 pta. txirrindularitzak, 191.339 krossak, 23.000 gomazko paleta txapelketak, 194.300 mendi taldeak eta 40.000 pezetara areto-futbol txapelketarako. Laxoa taldeak 360.000 pezetara eta Txaruta pilota elkarteak 420.000 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen.

Herriko Etxe zaharraren

...teiltuan itaxurak sortzen direla eta, bertan egin beharreko moldaketan txosten bat idaztea eskatu da.



Ameztia ondoko belagia 38 milioitan saldu da

Doneztebiko bestetan betizuak askatzen diren belagia, Ameztia ondoan, Doneztebe, Donamaria eta Oitzko Herriko Etxeen jabetza zen orain arte. Irailaren 6an egin zen lur eraikigarri hau saltzeko enkantea eta bertan Ezpelura, S.L. enpresaren eskaintza izan zen onena. Sexteorako epean, eskaintza hori inork gaitzitu ez duenez, behin betikoz adjudikatu zaio Ezpelura enpresari, 38.273.725 pezetaren truke.

Argazkia: Karmele

Liburuzain lanpostua lankidetzaz sozial kontratuaren bidez beteko da

Udalak ez du liburutegirako lanpostu finikorik eskainiko, "herriko Nafarroako liburutegi publikoen sarean sartzeko oztopoa suposatuz dezaitez" azken batzarrean erabaki-

takoaren arabera. Hau dela eta, INEM erakundearekin komenioa sinatu du udalak, lanpostu hori lankidetzaz sozial izeneko kontratu motaren bitartez bete dadin. Udalak, liburu-

tegia zona mailakoa eta ez herri mailakoa izatea nahi du. Malerrekan 5.000 biztanle inguru daudela kontuan hartuz, Nafarroako liburutegi publikoen sarean sartzen ahal da.



50.000 pezetako dirulaguntza

eman dio Udalak Etxarri Aranatzko Andra Mari ikastolari, Nafarroa Oinezaren aurtengo antolatzailerari, alegia.

Intzakardiko josteta-parkeko

jostailuak eta tresnak Jolas enpresak ekarriko ditu 2.796.208 pezetaren truke.

Eskolako frontoia

moldatu egingen da, DV pilota txapelketa eta ETBtik ematen den herri kirol jaialdirako txukun egon dadin. Frontis-ean bi loseta paratuko dira arauzko neurria izan dezan eta ezker paretan herriko eskudoa margotuko da. Lanak 350.000 pezetan egingen dira.

900.000 pezetako

dirulaguntza eman du INEMek materia bizigabeen zaborte-giaren proiektuko lanak egiteko langileak kontratatatzeko. Cerdanaren laguntza espero da orain.

FUNERARIA ZERBITZUAK

DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



SANTAMARIA Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

MALERREKA

Etxe barneko obrak egiteko udal baimena beharko da Iturenen

Igandean kontzertua emanen du Nafarroako Akordeoi orkestak

IBAN ISASI

Azkeneko udal bazarrean ahobatez onartu zenez, etxe barneko obrak egiteko udalaren baimena beharko da hementik aitzinera. Herriko Etxeko bulegotik adierazi dutenez, *"lan guziek ez dute baimena beharko, baina, adibidez, tabike bat botatzeko lizentzia eskatu beharko da"*. Modu honetan, arau subsidiarioak eta legea bete nahi dira.

Uhaldearen bideratzea adjudikatua

Iruñeko Coyser enpresak egingen ditu Ezkurra errearen bideratze lanak, Iturendik pasatzen denean. Aurrekontua 8.190.956 pezetakoa da (BEZ barne). Dagoeneko hasiak dira lanean eta abenduaren

Merkatal munduan euskararen erabilera haundiagotzeko kanpaina azaroan burutuko da

Merkatal munduan euskararen erabilera haundiagotzeko kanpaina dagoeneko hasia behar bazuen ere hila-bete honetan euskara teknikaririk ez dagoenez azaroan emanen zaio hasiera. 'Euskara merkataritzara' kanpaina honetako lehenbiziko fasean 100 bisitaldi egingen dira, euskararen aldeko hitzarmenak sinatu dutenak eta ideki berriak diren komertzioak izanen dira aukeratuak. Merkataria



Etxe barneko zenbait lan egiteko lizentzia beharko da

31 bitarteko epea izanen dute akitzeko.

Kontzertua igandean

Nafarroako akordeolarien orkestak urriaren 27an kontzertua eskainiko du, Nafarroako Gobernuak antolatuta, 'Udazkeneko Jirabi-

raren' barnean. Elizan izanen da kontzertua, eguerdiko 12etan.

Kultur Egunen egitaraua ia zehaztua

Azken ukituak falta dira kultur egunetarako guztiz zehazteko. Urriaren 11n egingako

bileran ardurak banatu eta zenbaitekaldi guztiz finkatuta gelditu ziren, hara nola antzerkia, abenduaren 6an egingen den kontzertua, dantzaldia, Hies edo Sida eta sexu harremanetako gaixotasunei buruzko solasaldia, bertzeen artean.

Goi mailako jatetxeen sukaldaritza ezagutzeko ikastaroa antolatu du Bertizko Partzuergoak

Bertizko Jatetxe elkartek urtero antolatzen duen ikastaroa jarrapena emanez, aurtengoan ere, goi mailako jatetxeen sukaldaritza ezagutzeko aukera izanen dute. Donostiako Txomin jatetxeko Sukaldari Arduraduna (Mikel Sorazu) eta jatetxe bereko gozoglea (Jorge Rubio) etorriko dira hainbat plater erakustera.

Ikastaroak Donezteben, honako egun hauek emanen dira: urri-

ren 28an, abenduaren 9an, abenduaren 16an eta abenduaren 23an, atsaldeko 5etatik 9etara.

Ikastaroak Bertizko Jatetxe Elkarteko bazkideei zuzenduak dira.

Bertzalde, **Remote** izeneko Formazio Planaren barneko bigarren ikastaroa hasiko da datorren hilbeltzean, Cedernak antolatuta. Zonalde honetako informazibilerari urriaren 28an burutuko da atsaldeko 7etan Doneztebiko Juansenean.



Errepide moldaketa

Doneztebe eta Mugairi artean, N-121-A errepidean egin beharreko moldaketak 'Asfaltos de Biurrun, S.A.' enpresak egingen ditu 52.592.598 pezetaren truke, Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabide sailaren adjudikazioaren arabera.

Doneztebeko etxebizitza zainduen

garbiketarako lehia-keta-ententea egingen du Malerrekako Mankomunitateak. Hasierako proposamenak urriaren 30eko eguerdiko 2ak baino lehen aurkeztu behar dira mankomunitatearen egoitzan. Ondorengo egunen batean, leku berean, onartutako proposamenak egin dituztenen arteko ententea egingen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Mankomunitateak Doneztebeko Merkataria karrikan duen egoitzara jo behar da.

5,6 milioiko dirulaguntza

jasoko du Nafarroako Gobernutik Bidasoa-Berroarango Administrazio bazardeak (Elgorriaga, Nabarte, Doneztebe eta Sunbillako udalak) Arrutela inguruko oihantze lanen proiekturako. Lanen aurrekontu osoa 11.580.000 pezetakoa da.

Zenbait langile kontratatu dira INEM eta udalen arteko lankidetzaren bitartez

INEM erakundeak udal ezberdinekin sinatua duen lankidetzaren bitartez zenbait langile kontratatu dituzte Beintza-Labaien, Oitz eta Donamarian.

Zehazki, Beintza-Labaien herriko lau langile hartu dituzte bi hilabeterako kontratarekin. Momentu honetan errota moldatzen ari dira. Oitzen hiru langile ari dira, horietatik bi herrikoak eta bertzera Berakoa. Hauek hiru hilabeterako ari dira lanean, gehien bat paretak moldatzen. Donamarian, azkenik herri-

ko bi langile kontratatu dituzte hiru hilabeterako, Herriko Etxeak egoki ikusten dituen lanetan aritzeko. Oraingoz farolak pintatzen eta pistak moldatzen ari dira.

Eskulangintza ikastaroa Donamarian

Hamahiru lagunek izena emana dute Donamarian burutuko den helduendako eskulangintza ikastaroan. Orain, Herriko Etxeak irakasleari kontrata egiteko esperoan daude, ondok berehala klasetan hasteko.



Oitzko xokoak txukuntzen hiru langile ari dira Artxiboa

Ezkurrako ur-hornidura, saneamendu eta zolaberritze lanen bigarren faserako lehiaketa deialdia egin du Udalak

Ezkurrako Herriko Etxeak herrian egiten ari diren ur-hornidura, saneamendu sare berritzea eta zolatze lanen bigarren fasea egiteko lanen kontrataziorako lehiaketa deialdia luzatu du.

Hasierako aurrekontua 25.889.408 pezetakoa da

(BEZ barne) eta behin hasiz gero, lanak hiru hilabete terdiko epearen barruan akitu beharko dira. Proposamenak azaroaren 11ko eguerdiko 2ak baino lehen aurkeztu behar dira Ezkurrako Herriko Etxeko bulegoetan, horretarako ohiko sistema erabiliz.



Lanen bigarren fasea adjudikatu bezain laister hasiko dira



EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • API 129
INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908.77.76.96
Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



Gaztelu. • Jardina duen etxea alokatzen da. 60.000 pta/hilean.

Urrotz. • Baserrira alokatzen da. 50.000 pta/hilean.



Erro. • Iruñetik ordu erdira 40.000 m²ko lur eremua duen baserrira saltzen da. Bide ona, ura eta eguzkitsua. 6,5 milioi negoziag.



Doneztebe. • Odriozola etxean apartamendua eta bi luxuzko etxebizitza saltzen dira. Prezioaz solastuko dugu. • Etxebizitza salgai, 6.500.000 pta.



Elbetea. • Hiru solairuko etxe mogleztatua (40 m² solairuko) eta 25 m²ko garajea duen etxea salgai. Prezio negoziagarria.

Basaburua Nagusia. • Iruñetik ordu erdira, Aizarozko jaurerria salgai. 1.000.000 m²ko eremua. Errota bizitzaren jartzeko modukoa. Bortz txalet egiteko moduko 10.000 m²ko lur eremu eraikigarria, bizitzaren jartzeko moduko etxea (landa turismorako edo bi familiendako egokia), hiru solairuko baserrira (400 m² solairuko), 126.000 m²ko belagia (kanpina

egiteko egokia) eta 700.000 m²ko basoa (haritz, pago, pinuak...). Prezioaz solastuko dugu.



Otsagi. • Bi solairuko borda (90 m² solairuko) salgai. 300.000 m²ko lur eremuarekin. Prezio negoziag.



Erro. • Sei logela duen hostala salgai. Prezioaz solastuko dugu.



Lekaroz. • Hiru solairu (50 m² solairuko) duen etxe tipikoa, 85 m²ko baratzarekin salgai. Ura eta argia. 7 milioi negoziagarria.

Gartzain. • Hostal Baztan parean 88 m² duen etxebizitza salgai. 40 m²ko bi terraza, 24 m²ko garajea eta 12 m²ko ganbara. 9 milioi edo baserriaz trukatzeko da.

Iruñe. • 65.000 m²ko lur eremua salgai. Ura, argia eta bidearekin. Zerri, behi, ostruka, ahate edo oilasko granja egiteko baime-narekin. Prezioaz solastuko dugu.

Iruñe. • 900 m²ko pabilioia alokairuan ematen da, erosteko aukerarekin. Kotxe tailerra, zurgindegi, etabarrentzako egokia. 180.000 pta/hilean. Salmentan negoziagarria.

Oronoz-Mugairi. • Lehen mailako nabeak salgai. 43.000 pta/m²tik goiti.

GOIZUETA

Donostiak 'Mendi babestua' deklaratu du Artikutza

Bestalde, herriko 45 ikasle hasi dira musika eskolan

ESTEBAN AROZENA

Donostiako udalak 'Mendi Babestua' bezala deklaratu berria du Artikutzako lur eremua orain dela hiruzpalau aste gehiengoz hartutako erabakian. HBko taldeak bakarrik eman zion kontrako botoa proposamen honi, aurretik Goizuetarekin adostasun batera ailegatu behar dela argudiatuz.

Gipuzkoako hiriburuan hartutako akordio hau ez da Goizuetaren gustokoa izan, honela Donostiaren esku soilik gelditzen baita Artikutzaren etorkizuna herriko alkatesak esan zigunez. Hori gerta ez dadin, Artikutza barrendegi edo enklabe naturala deklaratzeari eskatu dio Goizuetako udalak Nafarroako Go-



45 ikasle ari dira musika ikasten herrian

Artxiboa

bernuari. Iruñak eskarera hau onartuko balu hiru administrazioek (Goizuetak eta Donostiako udalak eta Nafarroako Gobernuak) zerbait esateko aukera edukiko

lukete barrendegiaren arauak egiterakoan.

Gauza haundirik lortzeko esperantzarik ez omen du herriko udalak, baina gutxienez aziendak alatzeko es-

kubidearen nolabaiteko errekonozimendua aitortarazi nahi omen die donostiarrei, azken urteotan gai honengatik sortutako arazoekin bukatuz.

Ikasturte berria musika eskolan

Urriaren 7an ireki zituen ateak herriko musika eskolak 1996-97 ikasturteari hasiera emanaz.

Aralar musika eskolaren barrenean dauden herrien artean, Goizuetak da biztanlegoa kontutan hartuz ikaslerik gehiena dituen, 45 hain zuzen ere. Hauetatik 34ek instrumenturen bat jotzeaz gain solfeoa ere ikasten dute. Bost tresna ezberdin dira herrian ikasteko aukeran daudenak, eta dirudienez aurrean modakoa kitarra da, 15 lagun baitira instrumentu honetan izena eman dutenak. Trikitixa berriz 8k ikasiko dute; txistua 11k; pianoa 3k; eta azkenik, kordiona beste 3k.

❖ **Egin mus txapelketaren** kanporaketa hurrengo larunbatean jokatu da Umore Ona elkartearen, gaueko 12etan.

ARESO

Eskolako arazoak konpondu gabe

Guraso batzuk entzerratu egin dira

JUANA M^a SAIZAR

Eskolako arazoak konpondu gabe segitzen du. Udalak eskaintzen dituen lokalak ez dituzte onartu nahi guraso gehienek eta hauek nahi duten lokalean entzerratu egin dira eta konponetzen hasiak dira.

Ikastaroak hasi dira

Lore lehorren eta gimnasia ikastaroa hasiak dira da-

goeneko. Lehenean astean bi egunetan aritzen dira bi orduz, eta bigarrenean hiru egunetan ordu t'erdiz.

Egin mus txapelketa

Pake Toki elkartearen jokatzen egin mus txapelketa urriaren 11n. Finala 12an jokatzen. Finalistak lau emakume izan ziren eta Maxe eta Joxepa suertatu ziren txapel-dun.



Antonio Alustiza eta Jai txapel-dun

Igantzik Artzai Txakur txapelketan irabazle suertatu ziren Antonio Alustiza eta Jai txakurra, 241 puntu eskuratu ondoren. Bost partehartzaileetatik hiru pasatu ziren finalera. Bi froga gaitzitu ondoren, Jai izan zen artaldea artegian sartu zuen bakarra.

Argazkia: Legarra

LEITZA

Baserritarren Eguna igandean ospatuko da

Egun osoan produktuen erakusketa eta salmenta izanen da

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako Kultur Taldeak dena prestatua dauka dagoeneko, aurten ere baserritarren eguna ospatzeko. Ohikoa den bezala, goizetik baserriko produktuen erakusketa eta salmenta izanen da herriko plazan. Goizeko 9etan hasiko dira baserritarrak beraien postuak jartzen eta 9,30ak aldera irekiko da merkatua. Baserriko produktuez gain, taloak eta gaztain erre-ak salduko dira; baita

ardoa eta sagardoa ere. Ordu batean, garai bateko jokoak egingen dira: txintxurriña, toka, zapoa...

2,30etan bazkaria izanen da Torrean (2.300pezeta) eta Zaldibiko txarangak eta bertako bertsolariek alaituko dute bazkal ondorena. Arratsaldez berriz irekiko da erakusketa. Baina igande aurretik ere izanen dira beste ekitaldi batzuk. Ostiralean, urriak 25, arratsaldeko 7,30etan Udaletxean, frutarbolei buruzko hi-



Hainbat produktu ikusgai izanen dira baserritarren egunean

tzaldia izanen da eta larunbatean berriz, arratsaldeko 4etan, artzai

txakurren saioa igerilekuen atzealdeko belar-soroan.



Karrape irratia ixildu da

Udalak Karrape Irratia denboraldi batez ixtea erabaki du. Alkateak adierazi zuenez, "ilusio handiz hasi ginen asmo honetan eta lan handia egin ondoren nahi bezain ongi ez dela gertatu ohartarazi digute. Funtzionamendu alde-rik ez da pentsatzen genuen moduan ateratzen". Langileen kontratoak urriaren 12an bukatu eta

luzatu ezin zirenez, momentu ona iduritu omen zaie etenaldia egiteko. Zein irratia mota nahi duten aztertu eta finkatzeko denboraldi batez irratia ixtea dela hoberena erabaki dute eta eperik jarri ez badute ere, beraien nahia irratia ahalik eta azkarren berriz ere martxan izatea dela azaldu dute. Ea laister aditzerik badugun.



Herri lurren eskualdatzea

Karobitxulo inguru-
an herriko 4.000 m² lur Venancia Ben-
goetxearen eskueta-
ra pasatuko dira. Ho-
nek trukean, Soro-
gain inguruko beste
horrenbesteko lur
eremua emanen dio
udalari.

Gripearen txertoa

Urriaren 30ean bu-
katuko da gripearen
kontrako txertaketa
aldia. Txertaketa
Osasun Etxean egi-
nen dizute, kontsul-
tako ordutegian.

Euskara merkatal mundura

kanpaina egiteko
pertsona bat behar
dute Areso eta Lei-
tzako udalek. Bere
egin beharra herriko
establezimenduak
bisitatzea izanen da,
euskara zerbitzuaren
laguntza eskaintza
azaldu eta egoeraren
jarraipena egiteko.
Izen ematea urriaren
30a baino lehen egin
behar da euskara zer-
bitzuan (610636).

ERABO ISTATU

ZOBIETA
© 948-451771



MENGHINI AKORDEOIAK

Gipuzkoarako Delegazio Ofiziala

**AKORDEOIAREN
GOI MAILAKO AKADEMIA**

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

Juan Arana 18, behea ezk.
Tfnoa eta Faxe: (943) 615055
20302 IRUN

DOMINENEA Etxea
San Andres 40
NARBARTE



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

BAZTAN

992 milioi pezetako aurrekontu arrunta du aurten Balleko Etxeak


Horietatik 480 inbertsioetarako erabiliko dira

JOSEBA IGARABIDE

992.082.481 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu aurten Balleko Etxeak, azken udal batzarrean onartutako aurrekontuaren arabera. Balleko Etxearen esku dauden Baztan ikastola eta F.J. Iriarte erresidentziarako aurrekontuak ere onartu ziren. 166.561.000 pezetakoa izanen du erresidentziak eta ikastetxeak, berriz, 50.382.004 pezetakoa.

Udal aurrekontuari dagokionez, diru irteerarik garrantzitsuena inbertsioetan joan da 479.960.000 pezeta gastatuko baitira. Langileen soldatetan ia 225 milioi t'erdia gastatuko dira. Zerbitzu eta ondasun arruntetan 170.820.000 pezeta gastatuko dira eta finantza gastuetan 46.450.000 pezeta, bertzeak bertze.

Diru sarrerei dagokien, subentzioetatik 274 milioi pezeta ailegatuko dira Balleko Etxearen kutxara eta zergen bitartez 116 milioi pasatuak. Tasa eta bertzetako diru sarrerengatik 87.780.000 pezeta jasoko dira. Finantza aktibo eta pasiboen alaketengatik 100 milioi pasatuak eskuratuko dira, azkenik.



Lehen pilota partidua Arraiozko frontoian

Urriaren 6an inauguratu zen Arraiozko Ariztialde frontoia. Ekitaldian, Arraioz eta Baztango alkateekin batera, Calixto Aiesa, Gizarte Ongizate saileko kontseilaria izan zen. Baztango dantzari txikien saioa, pilota partidua eta herri bazkaria izan ziren ondotik. 45 milioi pezeta inguru gasta da pilotalekua egitea, horietatik 20 Nafarroako Gobernuak ordainduak.

Eskualdeko hiltegiko ekipamendua adjudikatua

Tresneria Badalona-ko Polux enpresak ekarri eta instalatuko du 15.522.650 pezetaren truke. Hotzgailu instalazioa Noaingo Tarre enpresak egingen du 6.030.900 pezetatan. Iturgintza, aire konprimatu eta solidoak bereizteko instalazioa Mugaire iturgintzaren esku izanen da, 4.943.489 pezetatan. Kopuru hauei BEZa gehituko zaie.

Baztan errekaen defentsa lanak Giltxaurdin

Giltxaurditik barna pasatzen denean, Baztan erreka eskuinaldeko defentsa lanak kontratatzeke lehiaketaren bidez Balleko Etxeak. Hasierako aurrekontua 9.418.793 pezetakoa da (BEZ barne). Proposamenak aurkezteko epea urriaren 25eko eguerdian akituko da eta azaroaren lehen, arratseko 7,30etan zabalduko dira.

Bazkalekuak hobetzeko 12 milioi emanen ditu Diputazioak

Nafarroako Gobernuak Balleko Etxeko herri lurretako bazkalekuekin hobekuntzak egiteko bi urterako proiektua onartu berria du. Proiektuaren aurrekontua osoa 13.363.666 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak %90a subentzionatuko du (12.027.299 pezeta). Aurten 2.675.000 pezetako gastua egingen da 2.407.500 pezetako dirulaguntzarekin eta datorren urtean gainerako

10.688.666 pezetak inbertituko dira, Nafarroako Gobernuaren subentzioa 9.619.799 pezetakoa izanen delarik.

Diputazioaren idatzi hau ikusita, Balleko Etxeak Mizpizelai, Barrantxekoborda, Peruruna, Artxekokasko, Antxotebide, Landa-buru, Arleta, Armaila, Uzkue, Bailei, Zubietta eta Idoia inguruetako bazkalekuen hobetzeko lanak berehala hastea erabaki zuen.



♦ Eman euskarari berea

EKBk «Eman euskarari berea» kanpaina burutuko du Euskal Herria osoan barna. Baztanen ere ekitaldi batzuk antolatzeke taldea sortu da, zenbait elkarte bilduz, eta urriaren 16an bildu zen lehen aldiz. Bertan «euskararen egoera ez dela harro egoteko» adierazi zuten eta zerbait egiteko asmoa dago.

♦ Josetxo Plaza

55 urteko mendizale leharoztar ezaguna bihotzekoak jota hil zen urriaren 12an, Eskiz inguruan. Asteburuetako ohi-ko ibilaldia egiten ari zen hil zenean.

M^{re} Dolores Miñana
70POGRAFOA
NEURKETA • PLANOAK
Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONÓZ-MUGAIRI

DANBORIENTA
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
☎ 453403 - ARIZKUN

Eusko Ikaskuntzaren historia eta egungo egoerari buruzko erakusketa burutzen ari da


Solasaldiak eta mahainguruak ere izanen dira egunotan Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

«Eusko Ikaskuntza: iragana, oraina eta ge-roa» izenburupean erakusketa burutzen ari da Arizkunenea Kultur Etxean urriaren 18tik 30era artio. Erakusketa zabalik izanen da astelehenetik larunbatera, arratseko 7etatik 9etara. Erakusketaz gain, zenbait solasaldi eta mahainguru garatzen ari dira egunotan.

Asteazkenean, XVI. mendeko Baztango bizitza eta ohiturei buruz solasean aritu zen Pedro Esarte Arizkunenean.

Ortzegunean, urriak 24, «Megalitos kultura» izeneko mahainguru burutuko da arratsaldeko 7,30etan Arizkunenean, Josean Mujikak zuzendua. Datorren asteartean, urriak 29, ordu eta leku berean, «Euskara nere sorterrian» solasaldia eskainiko du Mariano Izetak. Asteazkenean, urriak 30, azkenik, Alejandro Arizkun arituko da solasean, «Baztango eko-



Belateko lanak: beranduago eta garestiago

Belate eta Almandozko tunelak ez dira 1997ko uda bitarte bukatuko, Jose Ignacio Palacios Herrilan kontseilariak errandakoaren arabera. Almandozkoa, argazkian ikusten denez, bukatua dago, baina Belatekoa egin arte ezin izanen da erabili. Hasierako aurrekontua %33an gaudituko omen da, teknikarien arabera. Gainera, datorren udarako akitua egonen bada ere, trafikora zabaltzeko pixko bat gehiago esperatu beharko da.

nomia: arazoak eta itxaropenak» gaiari buruz.

Bonba-paketea guardiazibil bati

Urriaren 11n, 20 gramu pentritaz osatutako bonba-paketea ailegatu zitzaion Elizondoko kuartelean destinatua

dagoen guardiazibil bati. Paketea irekitzerakoan kable batzuk ikusi eta kanpora bota omen zuen. Ez zen zauriturik izan.

Bergara auzoko zabortegia

Arazoekin segitzen

du Bergara auzoko zabortegiak. Ingurugiro sailarekin biltzekoa da Balleko Etxea.

100. urtebetetzea

Urriaren 22an ehun urte bete ditu Salome Aizpuru Goñi oronoztarrak.

Musika eskolako tasak onartu dira

Baztango musika eskolako funtzionamendu gastuak estaltzeko dirulaguntza eskatu dio Balleko Etxeak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura sailari. Eraberean, aurtengo aurrekontua eta ikasurte honetan ikasleek ordaindu behar dituzten tasak ere onartu ziren. Honako hauek izanen dira tasak:

Solfeon, 3. maila arte: 3.200 pta/hilean.

Solfeon, 4. eta 5. mailak: 4.500 pezeta.

Korala, 1. eta 2. mailak: 1.900 pezeta.

Instrumentoak hasierako mailan: 3.200 pezeta.

Instrumentoak, maila ertainan: 4.500 pezeta.

Familia ugarietako ikasleek zerbait gutiago ordaindu beharko dute eta Baztandik kanpoko ikasleek, aldiz, doblea baino gehiago

BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK

GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea

TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ **58 02 78**

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Elizatz

**ERLOJUTEGI
BITXITEGIA**

*Nafarrentzat
prezio bereziak*

Landetxe Enparantza ☎ 943.492698 OIARTZUN

URDAZUBI

Gimnasia, mekanografia, informatika eta dantza ikastaroak hasiak dira

Arkupeak antolatu duen gimnasia ikastaroan hamazazpi lagun ari dira

ALIZIA OLAIZOLA

Arkupeak elkarteak joan den urtean bezala gimnasia saioak antolatu ditu. Urrian hasi dira, astelehenetan eta asteazkenetan, arratseko 8,15etatik 10,15etara. Zugarramurdi eta Urdazubiko ikasleak biltzen dira.

Informatika eta mekanografia ikastaroa

Ikastaroekin segituz, informatika eta meka-

nografia ikastaroak hasiak dira. Eskoletan ematen dira klaseak, ortzegunetan mekanografiakoak eta ortziraletan informatikakoak, biak arratseko 8,15etatik 10,15etara. Zugarramurdi eta Urdazubiko ikasleak biltzen dira.

Dantza ikastaldiak

Atsulai elkarteak konpondurik, urtero bezala, herritik talde bat joaten da Ainhoarat larunbat arratsaldetan euskal dantza ikastaldietarat. Laister hasi beharrik dira antzerkiak egiten, dantza hauekin batera.



Atsulai dantza taldekoak berriki Landesetan izanak dira ekitaldiak egiten. Orain herritik talde bat joaten da larunbatero Ainhoarat euskal dantza ikastaldietarat

ZUGARRAMURDI

Erlajazio ikastaroari urriaren 18an hasiera eman zaio

Ortziralero emanen ditu klaseak Nicolas Mendiberrik

MARGARI ETA KORO

Urriaren 18an hasirik, eta hortik aintzina ortziralero arratseko 8etan, erlajazio ikastaro bat emanen da: bakoitzaren buruaren autokontrola eta halakoak. Ikastaroa Nicolas Mendiberrik antolatua da eta berak emanen du, Boskorreko tailer zaharren gaineko aldean. Nahi duenak ez du egun horretan harat joan baizik egin behar. Eta intereseko bertze datu garantzitsu bat: ikastaroa

dohainik da, ez da deus ordaindu beharrik.

Baztan aldera ere hedatuko da ikastaro hau: Elizondon, asteazkenetako arratseko 9etan emanen da.

Dirulaguntza Turismo sailetik

Nafarroako Gobernuak Turismo sailak Zugarramurdiko udalari 7.753.328 pezetako dirulaguntza eman dio lezeetan gastatzeko: lezeen inguruak hobetzeko eta ondoan dagoen eremu bat erosteko.



Lezeen inguruak apaintzeko dirulaguntza jaso da Turismo sailetik

SARA

Lapurtarren Biltzarra arrakastatsua suertatu zen Uztaritzen


Herriko Kontseiluak erabaki garrantzitsuak hartu ditu, bertzalde

MIXEL ETA JACQUELINE

Urriaren 6an Uztaritzen iragan zen Lapurtarren Biltzarra arrakastatsua suertatu da. Joan den urtean karro guti agertu bazen ere, aurtien hamazazpi herriko parte hartu zuten. Holako oldar batean gazteek bere errenkurak plazaratu dituzte: batzu bere herriari lotuak, bertzeek orokorri Euskal Herriak bizi dituen arazoei jarraikiz eta ororen buru gizarte arazoak azalduz. Agian batzuen eta bertzeen mezu eta lema guziek oihartzun baikor bat ukanen dute...

Herriko Kontseiluaren erabakiak

1994z geroztik Herriko Etxeak dirula



'Axuriatik Larrunerat' gaiaren pean zenbait kultur ekitaldi burutuko dira urte ondar huntan

Argazkia: Mixel

guntza bat eskuratzen du bere lurretan egiten den hazkuntzarengatik. Azkeneko batzar huntan erabakia izan da laguntza hunen herena eremu horietako bide

eta borden antolatze atxikitzea eta gaineratikoa herriko lurak baliatzen dituzten hazleriemaita. Laguntza hau denetik hola jokatu izan da.

Batzar berean jakian izan da herriak 700.000 liberetako laguntza ukainen duela departamentutik etxeetarat bideratzen den ura hobeki zabaldu eta indartzeko.

Kultur Hilabetea antolatu dute kultur taldeek

Aurtengo egitasmoren berri jakin berria dugu. Bigarren aldikotz eta iaz iragan hilabetearen erreikista ikusiz, urte ondar huntan ere ekintza aunitz ospatuko dira Axuriatik Larrunerat gaiaren inguruan eta lau herrietan.

Talde antolatazilea indartu egin da aurtengoan eta Azkaingo Altxa Lili, Sarako Etxola eta Zugarramurdiko Akelarre kultur taldeen batera elkartu da Berako Gure Txokoa ere.

Ez ditugu oraindanik iragaitekoak diren ospakizunak salatuko eta ondoko TTPI-TTAPAREN aleetan aipagai izanen dira, seguraski.

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA

FOTO MENA

ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

IA 100 URTE KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

KALE NAGUSIA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

PIKABEA
pinturak

Molinero drogerian
galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

ANTZUZELA!
S.L.

Irungo errepedea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erilaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Ahuajardakoa' Maizkoa
Zuhar antzekoa Tsapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

EZKONTZAK

Jose Manuel Baraibar Ansalas eta Gregoria M^a Soledad Jauregi Iñarrea, Almandozkoak, irailaren 21ean.
Eduardo Zubikoa Biela eta M^a Cecilia Usoa Eraso Thetschel, Elizondokoak, urriaren 5ean.
Juan M^a Zaldain Maisterrena eta M^a Jose Arribillaga Garaikoetxea, Amaiurkoa, urriaren 5ean.
Francisco Aristizabal Serrano eta Miren Jaione Mugerza Sukilbide, Donostiakoak Arizkunen, irailaren 12an.

JAIO TZAK

Lorena Estanga Sanz, Leitzakoa, urriaren 2an.
Beñat Altzugarai Irazoki, Donamariakoa, irailaren 13an.
Matixa Maia Abasolo, Lesakakoa, irailaren 29an.
Quentin Guijarro, Sarakoa, buruilaren 29an.
Joël Garbiso, Sarakoa, urriaren 6an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.
IRUÑEKO KUTXA
kuruko liburua

HERIOTZAK

Joaquin Ariztegi Migelena, Urrotzkoa, irailaren 11n, 82 urte.
Martin Goñi Telletxea, Oitzkoa, abuztuaren 13an, 63 urte.
Miguel Mutuberria Mitxeo, Saldiaskoa, urriaren 1ean, 48 urte.
Petra Juanikorena Santesteban, Iturengoa, urriaren 14ean, 72 urte.
Mauricio Gortari Salaburu, Erratzukoa, irailaren 29an, 40 urte.
Jesus Pujol Otegi, Elizondon, urriaren 5ean, 50 urte.
Manuel Eleno Alonso, Elizondon, urriaren 8an, 84 urte.
Teresa Goldarazena Azpiroz, Elizondon, urriaren 8an, 80 urte.
Jose Plaza Tuñon, Lekarozkoa, urriaren 12an, 55 urte.
Jeanne Aristeguy Anzizar, Sarakoa, urriaren 5ean, 62 urte.
Natividad Etchart Karrikaburu, buruilaren 22an, 69 urte.
Jose Jaurena Iturbide, Zugarramurdikoa, urriaren 1ean, 57 urte.
Periko Mindegia Garmendia, Iturengoa, irailaren 20an, 81 urte.



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten da:

1996ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxetan helbideratuak ez dituztenak:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 1996ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea abenduaren 31a arte luzatuko da, %5aren erretegia aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondoren premiamenduzko exekuzio bidez %20aren erretegiarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 1996ko urriaren 3an, PRESIDENTEAK



Baztango erranairuak eta Leitzako istorioak liburuetan

Argitaratu berri dira Mariano Izeta eta Patziku Perurena idazleen azken lanak

Baztango hiztegia eta erranairuak liburu urrian argitaratuko dio Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Mariano Izeta elizondarrari. Liburuan Baztan aldean erabiltzen diren hitz aunitz, 2.900 inguru eta 365 erranairu bildu ditu. Paskual Rekalde amaiurtarraren laguntza izan du izkribuak ordenagailura pasa, antolatu eta itxura ematen. Marianok adierazi duenez, "bildu ditudan erranairuak bizirik daude, erabiltzen dira. Batzuk osaba zenari entzundakoak dira".

LEITZAKO ERREGE-ERREGINAK

Leitzako bertso-kanta zaharrak, iragan mendearen erdialdetik mende honen erdialderainokoak, istorio horien protagonista diren leitzarren gizarte giroa eta hainbat familian nabarmendu den ahozko tradizioa plazaratu ditu Patziku Perurenak BBKren eskutik kaleratu den *Leitzako errege-erreginak* liburuan. Leitzarren istorio txikia eta aberatsa bildu du liburuan eta ahozko tradizioa-



Izeta eta Perurena, luma biziko idazleak

ren bidez kultura gorde duten errege-erreginei eskaini die Patziku Perurenak. "Beren lurrari lotuak eta

beren inguruarekin eta kulturarekin humanizatu den baino errege handiagorik ez dago munduan" dio.



Naturari buruzko argazki erakusketa ikusgarria Bertizko Natur Parkean

Urriaren 5ean hasi eta azaroaren 3a bitartek zabalik dago Bertizko Natur Parkearen gurdetegian eta Jauregioko Erakusketa aretoan «Wildlife Photographer of the Year 95» izeneko argazki erakusketa.

Londongo Natur Zientzien Museo Nazioanalek lehen aldiz aurkeztu du estatu espainolean lehiaketa horretan aukeratutako 88 argazkirik ederrenak. Naturari buruzko argazkien lehiaketarik garrantzitsuena da eta joan den urteko edizioan mundu osoko 57 herrialdetatik bidalitako

17.000 irudi jaso ziren. Horietatik 88 hobereak ikusgai izanen dira Bertizen, hamabi arlotan banatuak: "Ugaztunak", "Mundua gure eskuetan", "Hegaztiak", "Bertze animaliak", "Konposaketa eta forma", "Ur azpiko bizitza", "Arriskuan dauden narrastiak", "Animalien erretratuak", "Egunsentitik arratse-rra", "Natura erasotua", "Landareak" eta "Natura hiri eta lorategietan". Erakusketa goizeko 10etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4etatik 5,30etara zabalik izanen da.

Bortzirietako gazteen abesbatza lanean hasia da

Bortzirietako gazteen abesbatza funtzionatzen hasi berria da. Entsaioak, larunbat arratsaldetan izaten dira, 4,30etatik aitzinera. Abesbatzan hamabortz-hamasei urtetik goitiko neska-mutilek parte hartzen ahal dute. Interesatuak telefono hauetara deitu: 631355 (Jon Irazoki), Erika Lagoma (637319) edo Patri Arburua (637818).



SOULE

GURUTZEAK HILARRIAK

© 453038 ARIZKUN • © 123572 IRUÑA



Albistur, 39-K • 627542 • LESAKA

bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

Bigarren mailako aizkolari eta arpana txapelketaren finalak burutu dira Martzillan

Juan Jose Lopez lezaundarrak aisa nagusitu zen aizkoran eta Ultzamako Morrondo anaiek irabazi zuten arpanarekin

Urriaren 13an Martzillan burutu zen Nafarroako bigarren mailako txapelketaren finala. Bertan ziren, Anizko bestetan finalerako txartela eskuratua zuten bortz aizkolariak: Juan Jose Lopez (Lezaun), Jesus Etxeberria (Beintza-Labaien), Jose Luis Telletxea (Beintza-Labaien), Manuel Kañamares (Arostegi) eta Patxi Larretxea (Arraioz).

Egin beharreko lana bi kanaerdiko (54 ontza), 60 ontzako bertze bi eta oinbiko bat (72 ontza) moztea zen. Juan Jose Lopezek nagusitasun osoa erakutsi zuen eta 14 minutu eta 53 segundutan bukatu zuen bere egin beharrekoa. Kañamares 40 segundu gehiago behar izan zituen. Hirugarren posturako lehia gogorra izan zen eskualde-

ko aizkolarien artean. Patxi Larretxeak 17'08 segundu behar izan zituen lana burutzeko, 17'31" Jose Luis Telletxeak eta 17'41" Jesus Etxeberriak.

Bertzalde, hirugarren mailara Josetxo Telletxea, Joxe Olano eta Juan Jose Erdozia jeitsiko dira.

ARPANA TXAPELKETA

Arpanlariei dago kienez, Ultzamako Alvaro eta Eduardo Morrondok lortu zuten garaipena eta lehen mailarako igoera. 6 minutu eta 8 segundu bertzerik ez zuten behar izan 105 zentimetroko enborrari 10 ebakialdi horizontalean eta 4 bertikalean emateko. Ondotik Zazpe-Tirapu eta Oiartzun-Barberena sailkatu ziren.



Nafarroako 2. mailako aizkolari txapelketaren finala

	54"	60"	72"	60"	54"
Juan Jose Lopez	1' 50"	4' 36"	9' 23"	12' 36"	14' 53"
Manuel Kañamares	2' 03"	4' 56"	9' 55"	13' 07"	15' 33"
Patxi Larretxea	1' 46"	3' 09"	9' 15"	13' 03"	17' 08"
Jose Luis Telletxea					17' 31"
Jesus Etxeberria	2' 09"	5' 06"	11' 28"	15' 03"	17' 41"

ATLETISMOA

Lizuniagako Igoeraren hamaseigarren edizioa burutuko da igande honetan Beran

Igande honetan, urriak 27, goizeko 10,30etatik aitzinera burutuko da Beran Gure Txokoa elkarteak antolatzen duen Lizuniagarako Igoeraren hamaseigarren edizioa. Izen ematea egun berean zabalduko da Gure Txokoa-renegoitzan, 9,30etatik aitzinera eta ez da horregatik kobratuko. Proba 16 urtetik goitiko senior, beterano eta jubenil mailako gizonetzkoiei eta emakumezkoiei zabalik dago.

Sariak, proba bakoitzeko hiru lehenbizikoentzat izanen



dira. Denbora onena egiten duenak bildots bat eramane du eta norbaitek Pello Garinek 1982an lortu zuen errekorra (16' 13") gaindituko balu 20.000 pezeta saria eskuratuko luke. Parte-hartzaile guztiek oroi-garria hartuko dute. Azken hiru edizioetan eskualdeko korrikalariak nagusitu dira proban, 1993 eta 1995ean Jesus M^a Calvo eta 1994an Antonio Bru. Iazko proban Maika Ariztegi iturendarrak emakumeen marka berria ezarri zuen, 20' 18" denborarekin.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Julen Salaberria
Goizuetako pilotaria.

Ia bi hilabetez frontoietatik kanpo egon ondotik, konpromiso haundiko partidua jokatu zuen lau t'erdia-
ren barrenean Olaizola herriarraren kontra. Kostata izan bazen ere (16-21 bat altxatuz) irabaztea lortu zuen.



TTIPI-TTAPAKO kirol saila.

Azken alean lau t'erdia-
ren barreneko txapelketan eskualdeko zazpi pilotarik parte hartzen ari direla aipatu genuen eta Saldias-ko Juanjo Urrutia ahaztu genuen. Lehen kanporaketa galdu zuen Telletxearen kontra.

DATUAK.....

① Jose Javier Taberna 1970ko urtarrilaren 15ean jaio zen Lesakan. Gurasoak, ordea, arantzarak ditu.

② 23 urterekin debutatu zuen profesionaletan Asegarceren eskutik. Abuztuan, bertze bi urterako kontrata sinatu berri du.

③ Nafarroako txapelduna izana da jubeniletan eta zenbait aldiz azpitxapelduna afizionatutan. Espainiako club arteko txapelketan ere azpitxapeldun suertatu zen Oberena taldearekin.

④ Lau t'erdiko txapelketan lehen partiduan kanporatu bazen ere, ongi ikusten du 40 pilotari lehian paratu dituen sistema.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
AITOR AROZENA

✎ Jose Javier TABERNA Lesakako pilotari profesionala

"Titulu ofizialik lortu ez badut ere, joku mailan urte onena izan da"

Komunikabideetan agertzen denaren arabera, profesionaletan hasi zenetik urterik onena burutzen ari da Jose Javier Taberna. "Titulu ofizial mailan ez dut deus espezialik egin, baina joku mailan ongi aritunaiz, hagitz gustora. Irailan eskumuturreko lesio tiki bat izan dut eta hor frenatu naiz. Segundan punta xamarrean ibili naiz aurten eta maila horretan mantendu nahi dut, baina ez dut uste oraindik topea jo dudarik". Horregatik, etorkizunera begira "pausu bat goiti eman nahi dut: lehen mailako partiduetan jokatu eta bigarren mailako txapelketan zerbait inportantea egin".

Bere gorputz sendoan oinarrituta -1,87ko altuera eta 86 kilo- eskuin kolpe gogorra da bere ezaugarri nagusia. "Primerako bertze edozeinekin konparatzen ahal da. Konpetizioetan nerbioak lasaitzea eta asentatzea da falta zaidana".

GAINBEGIRADA BAT KOADROARI

Hiru urteko esperientziak ematen duen ikuspegiarekin, aurten debutatu duten eskualdeko pilotarien berri ematen du Tabernak: "Olai-zola primeran hasteko moduan ikusten dut. Go-



«Bi eskuekin berdin jotzen duten atzelariak dira jokatzeko zailenak»

nik gaia izugarria du, baina berde xamar dago oraindikan, asentatzea falta zaio. Apeztegiak ratxa txarra pasetzen ari da momentu honetan baina buelta emanen dio, pilotari haundia baita". Koadroari orokorrean begirata, Elgoro, Beloki

eta Arretxe ikusten ditut atzelari onenak bezala. Aitzinaldean berriaz, "Titin da gehien gustatzen zaidana, eta horretaz aparte Alustiza. Retegi ere hor dago oraindik, nahiz eta horberena emana duen". Beraz, argi dago Jose Javierreri aurrelari bi-ziak gustatzen zaizkiola, "tantua bukatzen daitenak. Aritzeko eta ikusteko ere hori gustatzen zait".

Lau t'erdiko txapelketan lehen partiduan

kanporatua izan da. Hare, ongi ikusten du berrogei pilotari lehian paratu duen aurtengo sistema. "Deno i aukera ematen zaigu. Bi kategoriatan banatuz gero, bigarren mailako txapeldun eta azpitxapeldunak bakarrik izanen zuten lehen mailakoen kontra jokatzeko aukera, eta hori datorren urtera esperatuta. Orain, txapelketa ona eginez gero aurten bertan jokatzeko ahal duzu lehen mailakoekin". ■

► "Bigarren mailan punta xamarrean ibili naiz aurten eta orain pausu bat goiti eman nahi dut: lehen mailako partidu normalak jokatu eta bigarren mailako txapelketan zerbait egin"

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

ELIZONDO

► Urriaren 25-26an

Xehetasunak
erdialdeko
gehigarrian.

KONTZERTUAK

LESAKA

► Urriaren 26an

gaueko 10etan
Kasinoan,
'Bosanegra' taldea.

► Azaroaren 1ean

gaueko 10etan
frontoian, 'Koma',
'Kashbad' eta 'EH
Sukarra' taldeak.

OSPAKIZUNAK

BERA

► Urriaren 27an

Lurraren Egunaren X.
edizioa. Xehetasunak
11. orrialdean eta
kontrazalean.

LESAKA

► Azaroaren 1ean

Gazte Eguna, Jarraik
antolatua. Antzerkia,
bertsolariak, kalejira,
bideoa eta kontzer-
tua. Xehetasunak 12
eta 15. orrialdeetan.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.300 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 185 pzta./kilo
- **Zerramak**: 135 pzta./kilo bizi-rik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanak
- | | | |
|-------|-------|-----|
| Extra | | 510 |
| 1.koa | | 500 |
| 2.koa | | 480 |

- **Urruxak:** Pzta/kg. Kanak
- | | | |
|-------|-------|-----|
| Extra | | 520 |
| 1.koa | | 500 |
| 2.koa | | 480 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
 - Nabarrak:** urruxak 16.000 eta idixkoak 23.000 Pzta.
 - Mestizoak:** urruxak 24.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.
 - Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 350 Pzta./Kg. Kanak. Behi gorri ona: 380 Pzta./Kg. Kanak.

DATU ITURRIAK: EHNE



Eskulangileen lanak ikusgai izanen dira egun osoan

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Hamargarren Lurraren Eguna igandean Beran

Urriaren 27an Berako Lurraren Eguna hamargarren edizioa beteko du. Urtero bezala, goiz goizetik hasita eskulangileen erakusketa eta Bortzi-rietako produktuen erakusketa eta salmenta izanen dira Altxate karrikan. Eraberean, gazta lehiaketa ere hamargarren aldiz burutuko da. Giroa alaitzen berriz, Bera trikitixa eta Zangotzako Rocamador dantza taldea arituko dira.

Arratsaldean, eskulangi-leen erakusketan kuxkuxeatu ahal izanen da berriro, horrekin batera, gazta lehiaketaren sariak banatuko dira. Taloak eta sargardoa dastatzeko aukera ere izanen da, Zizkuitz txarangaren konpainian. Arrats partean, besta egun eder hau borobiltzeko Gozategi talde famatuaren doinuak hedatuko dira Altxateko plazan.

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264


Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

GOZATEGI-JAIONE




Altxate, 19 • 630786 • BERA

ttipi-ttapa


6.300 harpidedun 21.000 irakurle

**ttipi-ttaparekin zure publizitatea
zonako sukalde-xoko guztian izanen duzu**

BALIOA GALDUKO DUTEN TXANPONAK



1997ko URTARRILATIK AUERRERA BALIOKO DUTENAK



Urteberritik aurrera txanpon zaharrek ez dute baliorik izanen

Hemendik bi hilabetetara, gaur egun normalki erabiltzen ditugun txanpon batzuk beren balioa galduko dute definitiboki. Urteberritik aurrera sartuko da indarrean Espainiako Bankuaren erabakia, eta zeintzuk balioa duten eta zeintzuk ez jakiteko, testu honen gainean dituzue argibideak irudietan.

Eltze-itsuak puskatzera

Txanpon zaharrak Egu-

berri aurretik kentzea omen da hobereana, ondolik, bankuek eta aurrezki kutxeek ez baitituzte erraz hartuko balioa galtzen duten txanponik. Horregatik, eltze-itsuetako sosak 'txatarra' bihurtzerik ez badugu nahi erne ibili beharra dago.

Nolanahi ere, datorren urtarrilaren 1etik aurrera balioa duten txanpon bakarrak, aspaldixkotik erabiltzen dira normalki, eta txanpon zahar batzuk ba-

lioak galtzeak, ez du esan nahi gaur ezagutzen ditugun guzkiek balioa galtzen dutenik. Funtsean, beren balioa galtzen duten txanponak, bere mailan tamaina haundiena dutenak dira, eta joan etorrian tamaina txikikoak bakarrik gordeko dute balioa. Salbuespena 200 Ptako txanponarekin gertatuko da bakar-bakarrik.

JOXE J. ORONoz
(LEITZA)

ERAKUSKETAK

SUNBILLA

► **Urriaren 14tik urriaren 27ra** Bidasoako Trenari buruzko erakusketa egonen da eskolan. Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatua da.

ELIZONDO

► **Azaroaren 1etik 14ra** Bidasoako Trenari buruzko erakusketa Kultur Etxean.

BERTIZ

► **Urriaren 5etik azaroaren 3ra** 'Wildlife Photographer of the year 95', naturaren fotogile onenen argazkiak ikusgai Bertizko Natur Parkearen gurditegia eta Jauregi-ko erakusketa aretoan.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa: deitu behar da

► **Urriaren 21etik 27ra** Igantzi, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► **Urriaren 28tik azaroaren 3ra** Arantzeta, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Azaroaren 4tik 10era** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

KOXXILA OSTATUA



Zarandia, 4 - **LESAKA**

HIGIEZINAK SALTZEKO

- 101. Etxeak
- 102. Etxebizitzak
- 103. Baserriak
- 104. Txaleak
- 105. Apartamentuak
- 106. Merkataritza-lokalak
- 107. Garajeak
- 108. Lurra/orubeak

HIGIEZINAK EROSTEKO

- 111. Etxeak
- 112. Etxebizitzak
- 113. Baserriak
- 114. Txaleak
- 115. Apartamentuak
- 116. Merkataritza-lokalak
- 117. Garajeak
- 118. Lurra/orubeak

ESKUALDATZEAK

- 121. Merkataritza-lokalak
- 122. Bertzelakoak
- 131. Etxeak

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 19-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ERRENTAN HARTZEKO

- 132. Etxebizitzak
- 133. Baserriak
- 134. Merkataritza-lokalak
- 135. Lurra/orubeak
- 136. Bertzelakoak
- 141. Etxeak

ERRENTAN EMATEKO

- 142. Etxebizitzak

- 143. Baserriak
- 144. Merkataritza-lokalak
- 145. Lurra/orubeak
- 146. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak

- 206. Osasun arlokoak
- 207. Mendi lanak
- 208. Gestoriak
- 209. Garraioak
- 210. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Saldu
- 502. Erosi
- 503. Tailerrak
- 504. Bertzelakoak

ANIMALIAK

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Eman
- 604. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu/aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak
- 802. Deialdiak

HIGIEZINAK SALTZEKO

102 ETXEBIZITZAK

BERA. Pisu salgai Iturlan-deta karrikako 6.ean, 2.A. 89m² ganbararekin. Prezio negoziagarria. 'Drogeria Molinero'ren blokean. ☎ 630455.

HIGIEZINAK SALTZEKO

103 BASERRIAK

DONAMARIA. Baserria salgai, sotoa, lehen solai-rua (etxebizitza) eta ganbara. Borda ttiki bat badu

berari itxekia eta larraina atarian. 150 m². Bengoe-txeako Borda. ☎ 510540.

HIGIEZINAK SALTZEKO

107 GARAJEAK

LESAKA. 58 m²ko lokala salgai. ☎ 387093.

LESAKA. 49 m²ko lokala salgai. Bittiria 61. Prezioa 6 milioi. ☎ (943) 616595.

LESAKA. 23 m²ko garajea salgai. Bittiria 37. 3 milioi. ☎ 637938 (Inma).

HIGIEZINAK SALTZEKO

106 MERKATARITZA-LOKALAK

BERA. 44 m²ko garaje edo lokal komertziala salgai, ura eta argiarekin. Legia karrikara ematen du. ☎ 630482 - 630136.

HIGIEZINAK SALTZEKO

108 LURRAK-ORUBEAK

ELIZONDO. 5.525m²ko terrena salgai. Badu ura, argindarra eta saneamendua. ☎ 452431.

HIGIEZINAK EROSTEKO

112 ETXEBIZITZAK

BERA. Pisu edo etxea erosiko nuke, edo beharbada, errenta merkean hartu. ☎ 210015 (Mª Angeles Aramendia).

ESKUALDATZEAK

121 MERKATARITZA-LOKALAK

DONEZTEBE. Osasun Zentroaren ondoan, Ekaitza Taberna traspasatu nahi da. Interesatuak deitu telefonoz haurtara ☎ 948-450100 eta 943-399713.

ORONÓZ-MUGAIRI. Osakorri den eskualdatu edo traspasatu nahi da. ☎ 592245.

IRUÑEA. Errotxapea au-

ERRENTAN EMATEKO

142 ETXEBIZITZAK

zoan pisu mobleztatua emanen nuke errentan. Kafekazkia, igogailua, eguzki aldera. ☎ 948.630217 Arratsetan.

LEGASA. Pisu mobleztatua errentan emanen nuke ☎ 450993.

IRUÑEA. Vuelta del Castillo kalean pisu bat errentan emanen nuke. Lau logela, sukalde bat, bi bainugela eta egongela bat. ☎ 451615 (Ana, lan orduetan).


ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

zimeldi

Pareta armarioak eta bereizte manparak ate irristatzaleekin Obrarik gabe!!

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017



Bidali TTAPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

631188



ttipi-ttapa
urte oso batez
(24 aldizkari)
Ameriketara
bidaltzeak
8.000 Pta. balio du.

Interesatua egon ezkerro, deitu **948-631188ra**

LANA

301 ESKARIAK

Leitzan orduka lan egingen nuke. Edozein ordutan. ☎ 610791.

45 urteko emakumea edozein lan egiteko prest; ja-tetxeetan, garbitze lanak egiten,.... ☎ 387093.

Etxeko lanetan arituko nintzateke. Igoal da orduko edo astean egun batzuk. ☎ 450923 (arratsetan hobe).

Ordenadorez lanak egiten dira. Fakturak, kartelak... Programa hauetan: Windows, Word, Acces, Excel eta Harvard Graphics. ☎ 450441.

Kartelak, buzoiartzeko pa-perak, bisita txartelak, Fak-tura taloiak... egiten ditu-gu. ☎ 631188. Bulego or-duetan.

MOTORRA

501 SALDU

Rieju MR80 motoa salgai, egoera onean. ☎ 635196.

Trialeko moto bat salgai, Montesa Cota 309 marka-koa. ☎ 453037.

Volkswagen Golf GTI 2.0 autoa salgai, NA-AF matri-kuladuna, lau urte. Egoera onean. ☎ 635201 (goizez, 9etatik 2etara).

Peugeot 309 Diesela sal-gai, NA-AG matrikuladuna.

☎ 635234 - 908. 778670.

MOTORRA

503 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzuki Vitara laburrak eta luzeak, Ford Escort eta Peugeot 205.
Tapizeriak garbitzen ditugu.

SA MPI ARAGON
Bigarren eskuko autoak erosten ditugu. Salgai daude 2 Mitsubisi, Vitara, Ford Escort eta Fiesta, Opel Kadet, Peugeot 205.
☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

GANIX
Tailerrak
Iturilandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 SALDU

50 ardi salgai. ☎ 514187 (eguerditan, 2ak aldera eta arratsean, 8etatik aurrera).

Luma ehiziko zakurku-meak salgai, pointer arra-zakoak, bi hilabeteakoak. ☎ 453079.

Behia salgai, 6 urtekoa, 8 hilabete ernari eta oso es-netsua. ☎ 610638..



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

BERA.

- 110 m'ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldera ematen du eta sartzeko prest dago.
- Etxe zoragarria salgai.
- Bi Duplex berri salgai.
- 200 m'ko bajera komertziala salgai.

LESAKA.

- 60 m'ko bajera bat salgai
- Ardogia salgai.
- Pisuak, garajeak eta baje-rak salgai.

ETXALAR.

- Baserria salgai herri-tik 2 km.tara.

ZIGAUERE (ZIGA).

- Jauregi-etxea salgai. 15.000 m'ko lur eremuarekin.

IRURITA.

- 140 m'ko etxebizitza salgai, 400 m'ko lur eremuarekin.
- 350 m'ko etxebizitza salgai, 200 m'ko lur eremuarekin.

ELIZONDO.

- Pisu haundi bat salgai.
- Pisu bat errentan emateko prest.
- Bajera batzuk salgai.
- Bajera haundi bat errentan emateko prest.
- 400 m'ko bajera salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

LEGASA.

- Pisuak salgai.

NARBART.

- Pisu berria salgai.

DONAMARIA (IGURIN auzoa).

- Txaleta salgai Igu-rin auzoan.

DONEZTEBE.

- Pisu batzuk errentan emateko prest.

- Pisu berri batzuk salgai.
- Pisuak salgai.

ELGORRIAGA.

- Pisuak salgai.
- Etxe polit bat salgai.
- 3.000 m'ko eremua salgai edo pisu batekin trukatu.
- Familia batendako etxea salgai.

ITUREN.

- Etxea egiteko lur eremua salgai.

ZUBIETA.

- Pisu berri batzuk salgai.

ERATSUN.

- Baserria salgai.

ARESO.

- Baserria salgai.
- 5.000m2ko lur eremua salgai.

BARAJBAR.

- Baserria salgai.

PREMIAZKOAK

- Lur eremu pixka bat behar da, tokiak ez du inporta, arbolak landatzeko. Ongi ordainduko da.

AUKERAK

- Zubietako pisuak 8.250.000 Pta.
- Berako duplexak 9.700.000 Pta.
- Legasako pisua
- Igu-rineko txaleta
- Elizondoko unifamiliak eta bif.
- Lesakako pisuak 15.000.000tik goiti.
- Lesakako bajera 7.500.000 negoziagarriak.

Edozein kisetako kontratuak egiten ditugu eta arazo legalak ere zuzentzen dira, abokatua baitugu. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ez. • DONEZTEBE

ANIMALIAK

603 EMAN

5 urteko artzai-zakurra emanen nuke. Etxea zain-tzeko espeziala. ☎ 637507.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Arantzako Aurreka base-rrian ahari bat agertu da. Faltan somatzen duenak Jose Luis Burgeteri eman diezaiola abisua.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Behiak jeizteko makina salgai Westfalia markakoa oso gutxi erabilia. ☎ 610638

Hiru eski-bota pare sal-gai. 41 eta 43 neurrikoak mendirako eta snowboard egiteko aproposak. Ber-tzea, 41 neurrikoa, 'Salo-mon' markakoa eta ski al-pinoak egiteko egokia. ☎ 630466 (Jose M^a).

10.000 haritz amerikano salgai Sunbillan. Orain es-

katu eta merkeago atera-ko zaizue. ☎ 908.617324.

TEX eta ZAGORen komi-kiak erosiko nituzke. Ko-lekzio osoa edo banaka. ☎ 627521.

Bigarren eskuko trikiti-xa erosiko nuke. ☎ 637264 (Kontxi).

Trikitixa erosiko nuke, hi-ru ahotsekoa. ☎ (943) 627335 (gauetan).

Amasadora ttikia gasoli-nazkoa salgai. ☎ 450621.

Bajerarako atea salgai, 2'36 m. altuera eta 2'78 zabal. Muellearekin igo-

tzen dena. ☎ 514182 (Juan Mari).

Pisu digitala ia berria salgai. ☎ 451527.

Arkoi-izozkailua salgai (1,70 zabal, 0,85 altu). Kristalezko tapa. Ongi dago eta modu onean salduko nuke. ☎ 6107911.

Deshumifikadore bat behar dugu. ☎ 450428 (arratsen).

Bateria salgai, Pearl Forum Series markakoa. ☎ 631183.

Sukalde ekonomikorako **ur-deposito** erabilia erosiko geuke. ☎ 451537.

Sukalde kalefaktorea, Hergon, egurrezkoa eta guti erabilia salgai. ☎ 631380 635194.

330 litroko **esne-tanke**a salgai, Alfa-Laval markakoa. ☎ 450679.



ttipi-ttapa
internet

Hamabostero paperean
eta mundu zabaleko ordenagailuetan

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>
Postontzi Elektronikoa: ttipi@encomix.es

100 watioko **anplifikadore**a salgai, Marshall JCM 900 markakoa. ☎ 630516 (Raul).

Gitarra elektrikorako pedalak salgai (Boss DSD 3 Delay, Wah-wah Cry Baby eta Turbo Distorsion). ☎ 630516 (Raul).

Estatu eta nazioarteko ga-

rario-titulua, kamioiarekin ibiltzeko, alokatuko nuke. ☎ (943) 625071 (Carlos, eguerdian).

HARREMANAK

801 AGURRAK

Hernaniko Tomaseri: zure gorputzak nere desio li-

zunak esnarazten ditu. Ea gabonetan nere azpian elkartzen garen nere nahiak asetzeko. Zorionak Tomi.

Tomas Alberrori: urtetik urtera geroz eta guapoagoa zaude. Zorionak zure urtebetetze egunean. Trago bat zor diguzu. Hainbeste maite duzun zure familiak.

Estibalitz Berruetari: utzi erretzeari zure anaia eta gurasoen partez.

Kaixo Unai Mariezkurréna: ezagutu zaitudanetik ez dut zuregan beste ezertan pentsatzen. Txoratuta naukazu eta zurekin ateratzean nire ametsa errealitate bihurtuko litzateke.

Kaixo Ezkurako Eneko Gorostiaga: ezagutu dudana mutil jatorrena zara eta gainera ez zaude batere gaizki. Ez zaitez aldatu. Arantxaren partez.

Kaixo Julen: Eratsungo guapoena zara. Txoratuta naukazu. Badakit ez dakizula euskaraz bainan zure laguneri galdetu eta erantzungo dizute. Ezkurako baten partez.

Ezkurako Joseba Barrankilentzat: oso ona zaude.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.

Sail hau dohanekoa da.

Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa

Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA



Jose Luis Tainta
Pikabea lesakarrak urriaren 28an beteko ditu 33 urte. Aunitz urtez maitasunez!



Liher Etxeberria
Belarra elizondarrak urriaren 5ean bete ditu 2 urte. Muxu haundi bat Pello, Belen eta Ekhiñeren partetik.



Gotzone Rekondo
lesakarrak urriaren 26an beteko ditu 26 urte. Ederki kostata Euskal Filologian lizentziatu berri da. Zorionak!



Monika Etxeberria
Balda ezkurarrak urriaren 31n beteko ditu 8 urte. Zorionak familiaren partez.



Gabon Gamio
Etulain aniztarrak urriaren 9an bete ditu 5 urte. Zorionak 'Indurain Txikito'.



Maider Mitxelena
Elizondo aranztarrak urriaren 25en beteko ditu 4 urte. Zorionak!



Eider Zugarramurdi
Osa goizuetarrak urriaren 24an bete ditu 6 urte. Zorionak. Zure familia.



Ainhoa Agesta
sunbildarrak urriaren 25ean beteko ditu 20 urte. Zorionak Lesakako lagunaren partez.



Aitor Otxetoko
Telletxea lesakarrak urriaren 20an bete ditu 25 urte. Zorionak zure lagunaren partez.



Tomas Alberro
Ibarra hernaniarrak urriaren 8an 23 urte bete zituen. Zuriteretan aditua. Zorionak!



Aitziber Almandoz
Larralde aranztarrak urriaren 21ean bete ditu 12 urte. Zorionak.



Xixo Aiestaran
Andueza lesakarrak urriaren 16an bete ditu 26 urte. Zorionak Sunbillaiko lagunaren partez.



Juano Arburua
zuamurdiarrak urriaren 14an bete ditu 25 urte. Zorionak Holandako neskakaren partez.



Ainhoa Berrueta
Arburua etxalartarrak 15 urte bete ditu urriaren 14an. Zorionak zure klaseko eta grupoko lagun batzuen partez.

BENTA-BERRI

LARRVAREN ETXEA

Ibardinga Gaina • ☎ 948.63 07 08 • BERA

**EGUNERO
IREKIA
DUGU**

**BAITA LARUNBAT
ETA IGANDETAN ERE**

goizeko 9,30etatik
arratsaldeko 7ak arte

Larrazko arropak eta osagarriak
Goi mailako kalidadea eta
aukerarik zabalena
hementxe bertan

Galtzak	20.000 - 25.000 Ptatan.
Txaketak eta Berokiak	30.000 - 75.000 Ptatan.
Boltsak	2.500 - 12.500 Ptatan.
Bidai-boltsak	5.000 - 6.000 Ptatan.
Gerrikoak	1.500 - 3.000 Ptatan.
Karterak	500 - 6.000 Ptatan.
Eskularruak	2.500 - 5.000 Ptatan.

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

*Ez galdu
denborarik!!*

URTE BUKAERA ARTE PROMOZIOA TRESILLOETAN

FINANTZIAZIOA
12 HILABETETAN INTERESIK GABE

X. LURRAREN EGUNA


.....

Urriak 27 • Igandea • Beran

- * BERA Trikitixa
- * Zangotzako Rocamador
dantza taldea
- * Eskulangintza
- * Barazki erakusketa
- * Bortzirietako
produktoen salmenta
- * X. Gasna Lehiaketa eta
salmenta
- * Taloak eta sagardoa
- * Zizkuitz txaranga
- * GOZATEGIrekin
dantzaldia

Antolatzaileak:

- Gure Txokoa • Guraso Elkarteak •
- Bortzirietako Euskaltegia • Erausian •
- Udal Kultur Batzordea •



BERA 1996